

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Fundazioak, zeinetan Euskal Sektore  
Publikoa nagusi den**

**Fundaciones con Posición Dominante del  
Sector Público Vasco**

**2006**





## AURKIBIDEA/ÍNDICE

I.	SARRERA.....	7
II.	LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.....	9
II.1	ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK ESKURATZEA.....	9
II.1.1	DONOSTIA INTERNATIONAL PHYSICS CENTER FUNDAZIOA .....	9
II.1.2	EUSKADIKO FILMATEGIA FUNDAZIOA.....	9
II.1.3	OÑATIKO LEGE SOZIOLOGIAKO NAZIOARTEKO ERAKUNDEA .....	9
II.1.4	ITSAS ETA ELIKAGAIEN ZENTRU TEKNOLOGIKOA (AZTI).....	10
II.1.5	EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRA (EGO) FUNDAZIOA.....	10
II.1.6	KALITATEA FUNDAZIOA .....	10
II.1.7	BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA FUNDAZIOA .....	11
II.1.8	GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA FUNDAZIOA .....	11
II.1.9	MAKINA ERREMINTA ARLOKO PRESTAKUNTZA TEKNIKORAKO FUNDAZIOA .....	11
II.1.10	EUSKAL HERRIKO GOI MAILAKO MUSIKA IKASTEGIRAKO FUNDAZIO PRIBATUA (MUSIKENE).....	12
II.1.11	OSASUN BERRIKUNTZA ETA IKERKETARAKO EUSKO FUNDAZIOA (BIOEF).....	12
II.1.12	LANBIDE PRESTAKUNTZARAKO EUSKAL FUNDAZIOA (HOBETUZ).....	13
II.1.13	NEKAZARITZA ELIKAGAIEN SEGURTASUNEKO EUSKAL ERAKUNDEA (ELIKA) .....	13
II.2	LANGILEAK KONTRATATZEA.....	13
II.2.1	DONOSTIA INTERNATIONAL PHYSICS CENTER FUNDAZIOA .....	13
II.2.2	ITSAS ETA ELIKAGAIEN ZENTRU TEKNOLOGIKOA (AZTI).....	13
II.2.3	EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRA (EGO) FUNDAZIOA.....	14
II.2.4	KALITATEA FUNDAZIOA .....	14
II.2.5	GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA FUNDAZIOA .....	14
II.2.6	MAKINA ERREMINTA ARLOKO PRESTAKUNTZA TEKNIKORAKO FUNDAZIOA .....	14
II.2.7	EUSKAL HERRIKO GOI MAILAKO MUSIKA IKASTEGIRAKO FUNDAZIO PRIBATUA (MUSIKENE).....	14
II.2.8	NEKAZARITZA ELIKAGAIEN SEGURTASUNEKO EUSKAL ERAKUNDEA (ELIKA) .....	14
III.	BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK.....	15
III.1	FUNDAZIOEN ERREGISTROA ETA BABESLARITZA.....	15
III.1.1	KUDEAKETAKO ALDERDIAK.....	15
III.1.2	ERREGISTROAN NAHITAEZ AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA ...	15



III.2. ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK ESKURATZEA.....	16
III.2.1 EKAIN FUNDAZIOA.....	16
III.2.2 ITSAS ETA ELIKAGAIEN ZENTRU TEKNOLOGIKOA (AZTI).....	16
III.2.3 KALITATEA FUNDAZIOA .....	16
III.2.4 NEKAZARITZA ELIKAGAIEN SEGURTASUNEKO EUSKAL ERAKUNDEA (ELIKA) .....	17
III.3. LANGILEAK KONTRATATZEA ETA HAUTATZEA.....	17
III.3.1 BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA FUNDAZIOA .....	17
III.3.2 GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA FUNDAZIOA .....	17
III.3.3 MAKINA ERREMINTA ARLOKO PRESTAKUNTZA TEKNIKORAKO FUNDAZIOA .....	17
III.3.4 EUSKAL HERRIKO GOI MAILAKO MUSIKA IKASTEGIRAKO FUNDAZIO PRIBATUA (MUSIKENE).....	17
III.3.5 OSASUN BERRIKUNTZA ETA IKERKETARAKO EUSKAL FUNDAZIOA (BIOEF).....	18
III.3.6 NEKAZARITZA ELIKAGAIEN SEGURTASUNEKO EUSKAL ERAKUNDEA (ELIKA) .....	18
III.3.7 ALDERDI OROKORRAK .....	18
III.4 ADMINISTRAZIO SARREREN ETA GASTUEN HELBURUA.....	19
III.5 BESTELAKO ALDERDIAK.....	19
III.5.1 EKAIN FUNDAZIOA.....	19
III.5.2 EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRA (EGO) FUNDAZIOA.....	20
III.5.3 GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA FUNDAZIOA .....	20
III.5.4 LANBIDE PRESTAKUNTZARAKO EUSKAL FUNDAZIOA (HOBETUZ).....	20
III.5.5 ALDERDI OROKORRAK .....	20
IV. URTEKO KONTUAK, 2006KO ABENDUAREN 31N .....	21
IV.1 EGOERA BALANTZEA.....	21
IV.2 EMAITZEN KONTUA.....	22
ALEGAZIOAK .....	23
I. INTRODUCCIÓN .....	59
II. OPINIÓN SOBRE CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD .....	61
II.1 ADQUISICIÓN DE BIENES Y SERVICIOS .....	61
II.1.1 FUNDACIÓN DONOSTIA INTERNATIONAL PHYSICS CENTER.....	61
II.1.2 FUNDACIÓN FILMOTECA VASCA .....	61



II.1.3	FUNDACIÓN INSTITUTO INTERNACIONAL DE SOCIOLOGÍA JURÍDICA DE OÑATE .....	61
II.1.4	FUNDACIÓN INSTITUTO PESQUERO Y ALIMENTARIO – AZTI.....	62
II.1.5	FUNDACIÓN JOVEN ORQUESTA DE EUSKAL HERRIA-EGO.....	62
II.1.6	FUNDACIÓN KALITATEA.....	63
II.1.7	FUNDACIÓN MUSEO DE BELLAS ARTES DE BILBAO .....	63
II.1.8	FUNDACIÓN MUSEO DE LA PAZ DE GERNIKA.....	63
II.1.9	FUNDACIÓN PARA LA FORMACIÓN TÉCNICA DE LA MÁQUINA HERRAMIENTA .....	64
II.1.10	FUNDACIÓN PRIVADA PARA EL CENTRO SUPERIOR DE MÚSICA DEL PAÍS VASCO (MUSIKENE).....	64
II.1.11	FUNDACIÓN VASCA DE INNOVACIÓN E INVESTIGACIONES SANITARIAS-BIOEF.....	64
II.1.12	FUNDACIÓN VASCA PARA LA FORMACIÓN PROFESIONAL-HOBETUZ .....	65
II.1.13	FUNDACIÓN VASCA PARA LA SEGURIDAD AGROALIMENTARIA-ELIKA.....	65
II.2	CONTRATACIÓN DE PERSONAL .....	65
II.2.1	FUNDACIÓN DONOSTIA INTERNATIONAL PHYSICS CENTER.....	65
II.2.2	FUNDACIÓN INSTITUTO PESQUERO Y ALIMENTARIO – AZTI.....	66
II.2.3	FUNDACIÓN JOVEN ORQUESTA DE EUSKAL HERRIA-EGO.....	66
II.2.4	FUNDACIÓN KALITATEA.....	66
II.2.5	FUNDACIÓN MUSEO DE LA PAZ DE GERNIKA.....	66
II.2.6	FUNDACIÓN PARA LA FORMACIÓN TÉCNICA DE LA MÁQUINA HERRAMIENTA .....	66
II.2.7	FUNDACIÓN PRIVADA PARA EL CENTRO SUPERIOR DE MÚSICA DEL PAÍS VASCO (MUSIKENE).....	66
II.2.8	FUNDACIÓN VASCA PARA LA SEGURIDAD AGROALIMENTARIA-ELIKA.....	67
<b>III.</b>	<b>CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....</b>	<b>68</b>
III.1	EL REGISTRO DE FUNDACIONES Y EL PROTECTORADO .....	68
III.1.1	ASPECTOS DE GESTION.....	68
III.1.2	DOCUMENTACION OBLIGATORIA A PRESENTAR EN EL REGISTRO .....	68
III.2	ADQUISICIÓN DE BIENES Y SERVICIOS .....	69
III.2.1	FUNDACIÓN EKAIN .....	69
III.2.2	FUNDACIÓN INSTITUTO PESQUERO Y ALIMENTARIO – AZTI.....	69
III.2.3	FUNDACIÓN KALITATEA.....	69
III.2.4	FUNDACIÓN VASCA PARA LA SEGURIDAD AGROALIMENTARIA-ELIKA.....	70
III.3	CONTRATACION Y SELECCIÓN DE PERSONAL.....	70
III.3.1	FUNDACIÓN MUSEO DE BELLAS ARTES DE BILBAO .....	70
III.3.2	FUNDACIÓN MUSEO DE LA PAZ DE GERNIKA.....	70



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

III.3.3 FUNDACIÓN PARA LA FORMACIÓN TÉCNICA DE LA MÁQUINA HERRAMIENTA .....	70
III.3.4 FUNDACIÓN PRIVADA PARA EL CENTRO SUPERIOR DE MÚSICA DEL PAÍS VASCO (MUSIKENE).....	70
III.3.5 FUNDACIÓN VASCA DE INNOVACIÓN E INVESTIGACIONES SANITARIAS-BIOEF.....	71
III.3.6 FUNDACIÓN VASCA PARA LA SEGURIDAD AGROALIMENTARIA-ELIKA.....	71
III.3.7 ASPECTOS GENERALES.....	71
III.4 DESTINO DE LOS INGRESOS Y GASTOS DE ADMINISTRACIÓN .....	72
III.5 OTROS ASPECTOS .....	72
III.5.1 FUNDACIÓN EKAIN .....	72
III.5.2 FUNDACIÓN JOVEN ORQUESTA DE EUSKALHERRIA-EGO.....	73
III.5.3 FUNDACIÓN MUSEO DE LA PAZ DE GERNIKA.....	73
III.5.4 FUNDACIÓN VASCA PARA LA FORMACIÓN PROFESIONAL-HOBETUZ .....	73
III.5.5 ASPECTOS GENERALES.....	73
<b>IV. CUENTAS ANUALES AL 31 DE DICIEMBRE DE 2006.....</b>	<b>75</b>
IV.1 BALANCE DE SITUACIÓN .....	75
IV.2 CUENTA DE RESULTADOS.....	76
<b>ANEXOS .....</b>	<b>77</b>
A.1 FUNDACIONES ANALIZADAS Y FINALIDAD .....	77
A.2 CONTRATOS ANALIZADOS .....	79
A.3 PLANTILLAS DE PERSONAL.....	83
A.4 AUDITORÍAS FINANCIERAS .....	84
A.5 DOCUMENTACIÓN PRESENTADA EN EL REGISTRO.....	86
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>87</b>

Vitoria-Gasteiz, 2011eko martxoaren 17a

Vitoria-Gasteiz, a 17 de marzo de 2011



## I. SARRERA

Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta, Epaitegi honen urteko lan egitasmoan sartu da Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Administrazioak nagusi dituzten fundazioen fiskalizazioa, 2006ko abenduaren 31ko egoerari buruzkoa.

Gure analisia fundazio jakin batzuetan aplikagarri den legedia betetzen den ala ez egiaztatzen mugatzen da. Fundazio horietan partaidetza du Euskal Autonomia Erkidegoak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoa osatzen duten administrazioak nagusi dira; alegia, ekarpen gehienbat publikoaren bidez eratutako fundazioak dira, edo sorrerako ondarearen % 50 baino gehiago (irauteko asmoarekin) erakunde publikoek emandako ondasun edo eskubideez osatuta dutenak.

Honako atal hauetan, aplikagarri den legedia bete duten ala ez aztertu dugu: ondasunak eta zerbitzuak eskuratzean, langileak kontratatzean, eta 2006ko ekitaldian jasotako sarrerek izan duten helburuan. Azken atal horri lotuta, egiaztatu dugu sarreraren gutxienez % 70 fundazioaren sorrerako helburuetarako erabili dela, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 12/1994 Legeak, 1994ko ekainaren 17koak, 30. artikuluan xedatu bezala.

Fiskalizatu beharreko fundazioak aukeratzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan informazioa eskuratu dugu. Erregistrotik hartutako azken datu eguneratuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean lortutako informazio gehigarriaren arabera, 2005eko abenduaren 31n EA Eren partaidetza zuten 24 fundazio ziren, eta haietatik 17 fundaziotan Administrazio Publikoak ziren nagusi.

Oraingo honetan, ez dira fiskalizatu fundazio horien artetik bi: Guggenheim Bilbao Museoko Fundazioa, 1998, 2005 eta 2010eko ekitaldietan fiskalizatua, 1999-2007 aldirako; eta Burdinbidearen Euskal Museoa, 2006ko abenduaren 28an sortua.



Txostena 15 fundaziori buruz egin da, eta fundazio horiek sortzeko horniduran, 2006ko abenduaren 31n, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Administrazioek partaidetza dute. Hona hemen 15 fundazio horiek:

	Partaidetza (%)	
	EAE	EAEko Sektore Publikoa, guztira
Donostia International Physics Center Fundazioa.....	50%	83,3%
EKAIN Fundazioa .....	33,3%	100%
Euskadiko Filmatagia Fundazioa.....	33,3%	66,7%
Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundea .....	100%	100%
Itsas eta Elikagaien Zentru Teknologikoa (AZTI) .....	44%	98,7%
Euskal Herriko Gazte Orkestra (EGO) Fundazioa .....	100%	100%
Kalitatea Fundazioa .....	100%	100%
Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa.....	33,3%	100%
Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa.....	33,3%	100%
Makina Erreminta Arloko Prestakuntza Teknikorako Fundazioa .....	59%	85%
Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegirako Fundazio Pribatua (Musikene)..	100%	100%
Osasun Berrikuntza eta Ikerketarako Eusko Fundazioa (BIOEF).....	100%	100%
Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa (HOBETUZ) .....	100%	100%
Nekazaritza Elikagaien Segurtasuneko Euskal Erakundea (ELIKA).....	33,3%	99,6%

Hasiera batean lanaren aztergai modura jaso zen Labein Fundazioa. Ordea, txostena egin dugun datan Fundazioa jada ez zela existitzen ikusirik, ezabatu egin ditugu behin-behineko txostenean fundazio honi buruz jasotako aipamen guztiak.

Egindako lanaren emaitzak honako atal hauetan aurkeztu dira:

- Legeak betetzeari buruzko iritzia. (Ikus II. atala)
- Barne kontroleko sistemiei eta kudeaketa prozedurei buruzko gogoetak. (Ikus III. atala)
- Aztertutako fundazioen urteko kontuak, 2006ko abenduaren 31n. (Ikus IV. atala)





## **II. LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

### **II.1 ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK ESKURATZEA**

Ondasunak eta zerbitzuak eskuratzearen arloan aplikagarri den araudiari dagokionez, kontuan izan ditugu 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuko 2. artikuluko 1. atala eta seigarren xedapen gehigarria. Lege horren bitartez onartu zen Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen testu bategina (APKLTB), 5/2005 Errege Dekretu Legeak emandako idazketarekin (2005eko martxoaren 11ko Errege Dekretu Legea, produktibitatea sustatzeko eta kontratazio publikoa hobetzeko larrialdiko berrikuntzei buruzkoa). Lege horiek beren aplikazio eremuaren sartu dituzte, berariaz, sektore publikoko fundazioak.

Aztertu dugu ea bete dituzten APKLTBko preskripzioak, enpresen gaitasunari, publizitateari, lizitazio prozedurei eta obra, hornidura, aholkularitza, laguntza eta kontratuak eta zerbitzu kontratuak esleitzeko moduei buruzkoak (5.278.227 euro edo gehiagoko zerbitzu kontratuak, BEZik gabe, baldin obra kontratuak badira; edo 211.129 euro edo gehiagoko zerbitzu kontratuak, baldin aipatutako kontratua aipatutakoetako bat ez bada) (APKLTBko 2.1. artikulua).

Aurreko paragrafoan aipatu ez diren kontratuetan, kontratuaren jarduera publizitate eta lehia printzipioekin bat datorren ala ez egiaztatu dugu (APKLTBko seigarren xedapen gehigarria).

Jarraian xehatu dira ondasun eta zerbitzuen erosketan aurkitutako legearen ez betetzeak.

#### **II.1.1 DONOSTIA INTERNATIONAL PHYSICS CENTER FUNDAZIOA**

- Aztertutako beste lau espediente (1.315 mila euroren zenbatekoa) zuzenean esleitu dira, publizitate eta lehia printzipiorik aplikatu gabe. (Ikus A.2)

#### **II.1.2 EUSKADIKO FILMATEGIA FUNDAZIOA**

- Telezinema altzaria erosi eta instalatzean (245 mila euro) ez dira bete APKLTBko preskripzioak, enpresen gaitasunari, publizitateari, lizitazio prozedurei eta esleitze moduei buruzkoak.
- Bi hornidura espedientetan (125 mila eta 36 mila euroren zenbatekodunak, hurrenez hurren) ez da ezarri esleipen irizpiderik, eta ez da justifikatu esleipendunaren hautaketa. (Ikus A.2)

#### **II.1.3 OÑATIKO LEGE SOZIOLOGIAKO NAZIOARTEKO ERAKUNDEA**

- Garbiketa zerbitzua (31 mila euro) zuzenean esleitu da, publizitate eta lehia printzipioak aplikatu gabe. Gainera, taxi zerbitzua (28 mila euroan esleitua) lehia printzipioa ezarri gabe esleitu da.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

#### II.1.4 ITSAS ETA ELIKAGAIEN ZENTRU TEKNOLOGIKOA (AZTI)

- Derioko bulegoak jartzeko eraikin berriaren eraikuntzaren esleipenean (6.591 mila euroan esleitua) ez dira bete APKLTBko preskripzioak, enpresen gaitasunari, publizitateari, lizitazio prozedurei eta esleitze moduei buruzkoak.

Kontratua gauzatzean, 811 mila euroko aldaketak egin dira. Aldaketa horietako hirutan (539 mila euroren zenbatekodun aldaketak) ez da jaso fundazioak onartu zituenik, kontratuan jasotako prezio kontrajarridun hiru eskaintza aztertu eta gero.

Kontratua gauzatzeko hasierako epea (15 hil) 24 hil arte luzatu da, eta horrek, % 60ko gehikuntza ekarri du.

- Bidaia zerbitzuaren kontratazioa (326 mila euroko gastua, urteko) zuzenean esleitu da eta, horrenbestez, ez dira bete APKLTBko preskripzioak, enpresen gaitasunari, publizitateari, lizitazio prozedurei eta esleitze moduei buruzkoak.
- Tecnalía fundazioarekin sinatutako hitzarmen baten arabera, 235 mila euro ordaindu ziren merkataritza politikak arrazionalizatzeko zerbitzuen truke, baina ez dira justifikatu ez ezarritako urteko kuota, ez eta sartutako kontzeptuak ere.
- Teize SL bazkide sortzaileari 203 mila euro ordaindu zaizkio, produktuak eta zerbitzuak merkaturatzearen ordainetan, 2001eko azaroaren 23an sinatutako hitzarmena betez. Hala ere, ez da jaso hiru hilez behin fakturazioarekin justifikatu beharreko kontzeptuen banakapena.

Bestalde, 170 mila eta 183 mila euro ordaindu ziren bi proiektutan aholkularitza jasotzeagatik, baina ez da justifikatu kontratuaren xedea. (Ikus A.2)

- Zerbitzu, laguntza tekniko eta hornidurako 16 espedientetan (1.149 mila euro), ez da egin ez publizitaterik ez lehiarik. Bestalde, JUVENA 06 kanpainan ontziak alokatzeko zerbitzuan (106 mila euro) ez da publizitaterik egin; eta beste bi zerbitzu kontratutan eta hornidura kontratu batean (26, 14 eta 31 mila euroan esleituak, hurrenez hurren) ez da lehiarik egin. (Ikus A.2)

#### II.1.5 EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRA (EGO) FUNDAZIOA

- Fundazioaren jarduera kudeatzeko, publizitatea egiteko eta bekak kudeatzeko kontratuak 124 mila euroren gauzatzea izan du 2006an. Kontratu hori zuzenean esleitu da, publizitate eta lehia printzipioak bete gabe. Gainera, fundazioaren kudeaketaren ardura duen sozietateari berari esleitu zaio Orkestraren X. urteurreneko oroitzapenezko ekitaldien antolaketa (34 mila euro), baina ez ditu bete publizitate eta lehia printzipioak.

Bestalde, Orkestraren garraio zerbitzua (21 mila euro) zuzenean esleitu da, lehiarik gabe.

#### II.1.6 KALITATEA FUNDAZIOA

- Prentsan, irratan eta telebistan publizitatea kudeatzeko zerbitzua (520 mila euro) zuzenean esleitu da. Horrenbestez, ez dira bete APKLTBko preskripzioak, enpresen gaitasunari, publizitateari, lizitazio prozedurei eta esleitze moduei buruzkoak.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- Beste lau esleipen (bi zerbitzuena, bat laguntza teknikoarena eta beste bat hornidurarena, 138, 97, 130 eta 73 mila euroren zenbatekodunak, hurrenez hurren) publizitate eta lehiarik gabe egin dira. (Ikus A.2)

### II.1.7 BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA FUNDAZIOA

- Museoko zaintza zerbitzuaren espedientea (313 mila euroan esleitu eta 544 mila euroko amaierako gauzatzearekin) publizitaterik gabe esleitu da. Haztatu gabeko irizpideak sartu dira, eta irizpideetakoren bat ez da kontratuaren xedeari buruzkoa. Horrenbestez, ez dira bete APKLTBko preskripzioak, enpresen gaitasunari, publizitateari, lizitazio prozedurei eta esleitze moduei buruzkoak, eta ez dira onartu hasieran esleitutako kontratuaren aldaketak.
- Aretoko laguntzaileen zerbitzua (265 mila euro) zuzenean esleitu da, publizitate eta lehiarik gabe, nahiz eta zerbitzu hori APKLTBko enpresen gaitasunari, publizitateari, lizitazio prozedurei eta esleitze moduei buruzko preskripzioei atxikita dagoen.
- Honako hauek zuzenean eta publizitate zein lehiarik gabe esleitu dira: gasolio hornidura (104 mila euro), ARTEDER proiektua kudeatzeko zerbitzua (102 mila euro), Herrera-Velazquez erakusketarako aseguru (75 mila euro), liburuxkak inprimatzekoa (67 mila euro), hezkuntzakoa (63 mila euro) eta telefoniakoa (37 mila euro).
- Museoko garbiketa zerbitzuaren espedientea, Zamacois erakusketako garraioaren espedientea eta kutxatilatagi eta arropazaindegiaren espedientea (180, 135 eta 89 mila euroan esleituak, hurrenez hurren) publizitaterik egin gabe esleitu dira; eta, azken espediente hori, kontraturiko zenbatekoaren aldaketak onartu gabe. Bibliografia katalogatzeko espedientea (29 mila euro) lehiarik gabe esleitu da.

### II.1.8 GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA FUNDAZIOA

- Museoko funtzionamendua kudeatzeko zerbitzua (105 mila euro) 146 mila euroan gauzatu da; garbiketa zerbitzua, 39 mila euroan; eta inprentakoa, berriz, 34 mila euroan. Hiru zerbitzu horiek publizitate eta lehiarik gabe esleitu dira, eta aipatutako lehenengo zerbitzua gauzatutako gehiegizkoa eragin duten aldaketak onartu gabe esleitu da.

### II.1.9 MAKINA ERREMINTA ARLOKO PRESTAKUNTZA TEKNIKORAKO FUNDAZIOA

- Ondoko espedienteak zuzenean esleitu dira, publizitate eta lehiarik egin gabe: Tedes proiektuan lankidetzan aritzeko espedientea (109 mila euro), garbiketa zerbitzuaren espedientea (66 mila euro), software informatikoa garatzeko espedientea (50 mila euro), ingeleseko ikastaroak emateko espedientea (44 mila euro), prentsan iragarkiak jartzeari buruzko espedientea (42 mila euro), euskara plana ezartzeko espedientea (41 mila euro) eta kopiagintza espedientea (32 mila euro).
- Ondoko espedienteak lehiarik gabe esleitu dira: Robotiker Fundazioarekin lankidetzan aritzeko espedientea (28 mila euro), jatetxe zerbitzuaren espedientea (25 mila euro),



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

publizitate kanpainetako diseinu eta kopiagintza espedientea (24 mila euro), informatikako mantentze lanen espedientea (22 mila euro), produkzioko diseinuari buruzko ikastaroaren espedientea (22 mila euro), triptikoak inprimatzeari buruzko espedientea (19 mila euro), informatika ikastaroak emateari buruzko espedientea (17 mila euro), itzulpeni buruzko espedientea (15 mila euro) eta Malasia proiektuan lankidetzan aritzeko espedientea (14 mila euro).

### **II.1.10 EUSKAL HERRIKO GOI MAILAKO MUSIKA IKASTEGIRAKO FUNDAZIO PRIBATUA (MUSIKENE)**

- Bidaiak eta ostatua kudeatzeko zerbitzua (684 mila euro) zuzenean esleitu da. Horrenbestez, ez dira bete APKLTBko preskripzioak, enpresen gaitasunari, publizitateari, lizitazio prozedurei eta esleitze moduei buruzkoak.
- Katalogazio zerbitzua (35 mila euro) zuzenean esleitu da, publizitate eta lehia printzipioak aplikatu gabe. Bi kontrabaxuren hornikuntza eta kontuak ikuskatzeko eta kontabilitateko eta zergen arloko aholkularitza emateko zerbitzua (26 eta 20 mila euro, hurrenez hurren) lehiarik gabe esleitu dira.
- Fundazioak 273 mila euroren zenbatekoa ordaindu dio Miramar Jauregiko Partzuergoari, fundazioa Miramar Jauregian kokatzeko gastuen ordainetan. Kontzeptu hori dela eta ordaindu beharreko diru kopurua 2001eko uztailaren 5ean bi aldeek sinatutako hitzarmenean ezarri zen, baina diru kopuru horren gaineko erabakirik ez da jasota geratu.

### **II.1.11 OSASUN BERRIKUNTZA ETA IKERKETARAKO EUSKO FUNDAZIOA (BIOEF)**

- EAEko osasungintzaren analisi ekonomikoa egiteko laguntza teknikoaren espedientea (136 mila euroan esleitua) zuzenean esleitu da, publizitate eta lehiarik gabe. DNA bankurako aholkularitza juridikorako laguntza teknikoaren espedientea (28 mila euroan esleitua), osasun publikoaren kalitate galdeketa (24 mila euro) eta kontabilitate eta zerga aholkularitzako zerbitzua (20 mila euro) zuzenean esleitu dira, lehiarik gabe.
- Carlos III.a Institutuko 2006ko deialdiko ekipamendu zientifikoa hornitzeko lau espediente (lau hornitzailei 212 mila euroan erosiak) publizitaterik gabe esleitu dira, eta ez dira justifikatu erabilitako balioztatze irizpideak. Beste lau espediente (213 mila euro) eta espediente bat (25 mila euro) eskusibotasuna era objektiboan justifikatu gabe esleitu dira. Horrenbestez, ez dira bete publizitate eta lehia printzipioak aipatutako lau espedienteetan, eta ez da bete lehia printzipioa azken espediente horretan. (Ikus A.2)
- 2005eko ETORTEK deialdiko genotipatze azterketa eta txostenetarako laguntza teknikoaren espedientea (463 mila euro) eta Carlos III.a Institutuko 2006ko deialdiko Applied ekipamendu zientifikoko hornidurari buruzko espedientea (630 mila euro) zuzenean esleitu dira, eskusibotasun arrazoiak direla eta, baina eskusibotasuna justifikatu gabe. Horrenbestez, ez dira bete APKLTBko preskripzioak, enpresen gaitasunari, publizitateari, lizitazio prozedurei eta esleitze moduei buruzkoak.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### **II.1.12 LANGILEEN PRESTAKUNTZARAKO EUSKAL FUNDAZIOA (HOBETUZ)**

- Aholkularitza eta kudeaketa informatikoa eta telekomunikazio zerbitzua (82 eta 61 mila euro, hurrenez hurren) publizitaterik eta lehiarik gabe esleitu dira. Aholkularitza juridikoaren kontratazioan (20 mila euro) lehia printzipioa falta da; eta laguntzen deialdietan parte hartu dutenen zirkularizazioan (13 mila euro) ez da esleipena motibatu.

### **II.1.13 NEKAZARITZA ELIKAGAIEN SEGURTASUNeko EUSKAL ERAKUNDEA (ELIKA)**

- Informatika aplikazioak mantendu eta hobetzeko zerbitzua (23 mila euro), elikadura ohituren azterlana (20 mila euro) eta testuak itzultzeko zerbitzua (16 mila euro) zuzenean esleitu ziren, lehiarik gabe.

Epaitegi honen iritziz, atal honetan aipatutako fundazioek, 2006ko ekitaldian, ez dituzte bete ondasun eta zerbitzuak erosteari buruzko arauak.

## **II.2 LANGILEAK KONTRATATZEA**

Langileak kontratatzeari aplikagarri zaion legedia ea betetzen den aztertu dugu. Sumatutako ez betetzeak ondorengo hauek dira:

### **II.2.1 DONOSTIA INTERNATIONAL PHYSICS CENTER FUNDAZIOA**

- Langile bati hasiera batean aldi baterako egin zitzaion kontratatua, gerora kontratu mugagabe bihurtu da, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak beteko direla bermatzen duen prozedurarik gabe.

### **II.2.2 ITSAS ETA ELIKAGAIEN ZENTRU TEKNOLOGIKOA (AZTI)**

- Egindako lan kontratu finko bakarrean eta aldi baterako bost lan kontratuetatik bitan, ez zen aski publizitaterik egin.
- 5/2006 Errege Dekretuko (2006ko ekainaren 9koa, hazkundera eta enplegua hobetzeko) hobariak eta zerga salbuespenak baliatzearen, kontratu mugagabe bihurtu ziren aldi baterako 43 kontratu. Horretarako erabilitako prozeduran, ez ziren errespetatu aplikatzeak diren berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak. Gainera, prozedura horretan antzintasuneko betekizuna betetzen ez zuten bi pertsona sartu dituzte, eta ez dituzte sartu betekizun hori betetzen zuten bederatzi; ez dituzte horren arrazoiak azaldu.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### **II.2.3 EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRA (EGO) FUNDAZIOA**

- Ez dago jasota orkestraren zuzendaria hautatzeko erabakia fundazioaren patronatuak onartu izana, ez eta erabaki horren arrazoiak ere.

### **II.2.4 KALITATEA FUNDAZIOA**

- Aldi baterako 5 langile kontratatzeke erabilitako prozedurak ez ditu bete berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak.

### **II.2.5 GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA FUNDAZIOA**

- Langile bati hasiera batean aldi baterako egin zitzaion kontratatua, gerora kontratu mugagabe bihurtu da, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak beteko direla bermatzen duen prozedurarik gabe.

### **II.2.6 MAKINA ERREMINTA ARLOKO PRESTAKUNTZA TEKNIKORAKO FUNDAZIOA**

- Lan kontratu finkoarekin langile bat kontratatzean, ez da bete publizitate printzipioa.
- Fundazioko bi zuzendarik, Administrazio orokorreko Hezkuntza Saileko unibertsitatez besteko irakasle izanik, hurrenez hurren 26 eta 22 mila euroren osagarriak jaso dituzte, eta ez dago agiririk, egin beharreko eginkizunak eta egindako ordainketa onartzen dituenik.

### **II.2.7 EUSKAL HERRIKO GOI MAILAKO MUSIKA IKASTEGIRAKO FUNDAZIO PRIBATUA (MUSIKENE)**

- Aldi baterako 16 langile kontratatu dira berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete gabe.
- Aldi baterako 12 kontratu, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren 2006ko maiatzaren 9ko epaia aplikatuz, kontratu mugagabe bihurtu dira. Izan ere, epai horrek lan kontratu finkoa aitortzen die behin eta berriz berritutako aldi baterako lan kontratua dutenei.

### **II.2.8 NEKAZARITZA ELIKAGAIEN SEGURTASUNEN EUSKAL ERAKUNDEA (ELIKA)**

- 5/2006 Errege Dekretuko (2006ko ekainaren 9koa, hazkundera eta enplegua hobetzeko) hobariak eta zerga salbuespenak baliatzearen, kontratu mugagabe bihurtu ziren aldi baterako 4 kontratu. Horretarako erabilitako prozeduran, ez ziren errespetatu berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak.

Epaitegi honen iritziz, II.2.1. ataletik II.2.8. ataleraino aipatutako fundazioek, 2006ko ekitaldian, ez dituzte bete langileak kontratatzeari buruzko arauak.



### **III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK**

#### **III.1 FUNDAZIOEN ERREGISTROA ETA BABESLARITZA**

##### **III.1.1 KUDEAKETAKO ALDERDIAK**

- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legeak (12/1994 Legea, 1994ko ekainaren 17koa) eratu zuen lege horren mende diren fundazioen gainean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak duen babesletza, gehienbat aholku eta informaziozkoa den administrazio organo gisa. Gainera, Administrazio orokor horrek gainbegiratze eginkizunak ditu, erakunde horien lege onarpen eta babesaren oinarri den interes orokorrak eskatzen duenez.

Praktikan, jarduketak erregistratzeko eta nahitaezko dokumentuak jasotzeko eginkizuna egiten du, informatu eta aholku emateko eginkizuna baino areago. Datuak ez daude eguneratuta, eta ezin dira erabili fundazioen eta fundazioetako prozeduren kontrol hobea egiteko kudeaketa tresnatzat. Hartara, lan honi ekitearren egin genuen hasierako informazio eskaerari ez zitzaion erantzun, arrazoi hauek adierazita: lan karga pilatua zutela, espedienteen kudeaketan hiru urte bitarteko atzerapenak izanda; datuak ustiatzeko aplikazio informatiko baten eza; eta langileria beharrak.

Atzerapenik handiena pilatua duten erregistratu beharreko espedienteak, gainera, garrantzitsuenak dira; izan ere, kalifikatu, txostena egin eta, hala egokituz gero, dagokien asentuetan erregistratu beharrekoak dira. Atzerapen horrek arazo juridikoak sor ditzake fundazioen jarduketetan, eta bizkortasunik eza eragin dezake erabakiak hartzean.

Fundazioek nahitaez bidali beharreko ekonomia eta finantza datuak aztertzeke lana azpikontrataturik dago, eta bere txostenetan ez ditu beharrezko datu guztiak biltzen, edo ez ditu behar bezala islatzen, eta datu horiek ez dira beti homogeneoak.

Komeni litzateke formatu normalizatu batean bateratzea fundazioek eman beharreko informazio guztia, gainbegiratze prozedura bizkortu eta bermatzearren eta babesletzako baliabideak dituen kudeaketa eta aholku zereginetara bideratu ahal izatearren.

##### **III.1.2 ERREGISTROAN NAHITAEZ AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

- Fundazioek aurkeztu beharreko 2006ari buruzko nahitaezko dokumentuak araututa daude 404/1994 Dekretuan (1994ko urriaren 18ko dekretua, Fundazioen Babeslaritza eta Erregistroaren antolakuntzarako eta funtzionamendurako arautegia onartzen duena); dekretu hori indarrean baita fiskalizatutako urtean. Bada, dokumentu horiek entregatzeari dagokionez, ikusi dugu ez direla entregatu edo atzerapen nabarmenaz entregatu direla. (Ikus A.5.)

Ez ziren legalizatzen aurkeztu sei fundazioen kontabilitate liburuak; eta bi fundaziok epez kanpo aurkeztu zituzten, bata 2008an eta besteak 2009an. Orobat, ez ziren aurkeztu sei fundazioen akta liburuak; eta lau fundaziok epez kanpo aurkeztu zituzten, hiruk



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

2008an eta batek 2009an. Urteko aurrekontuak ez zituzten aurkeztu bost fundaziok; eta urteko kontuak ez zituen aurkeztu fundazio batek, 2008an aurkeztu baitzituen legalizatu beharreko liburuen artean.

Akta liburuak hainbat erataraz eramaten dira. Gehienek orri solteak edo liburu koadernatuak darabiltzate, eta gero babesletzara bidaltzen eta zuzemenak egiten dituzte. Kasu batean baino ez da eramaten aldeztu aurretik babesletzak gaitu eta zenbakitutako orrietan. Uste dugu sistema hori dela egokiena, dokumentazioa informatikaz egitea ahalbidetzen baitu, eta eskuz idatzi beharra eta aldatu beharra saihesten.

## III.2 ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK ESKURATZEA

### III.2.1 EKAIN FUNDAZIOA

- Aztertutako bost espedientetik lau (4.391 mila euroan esleituak) gauzatzean, atzerapen handiak izan dira. Horietako bat, faksimileen instalazioa gainbegiratzea (33 mila euro), publizitate eta lehiarik gabe egin da; eta beste bat, eszenografiaren muntaketaren gainbegiratzea (29 mila euro), lehiarik gabe. (Ikus A.2)

### III.2.2 ITSAS ETA ELIKAGAIEN ZENTRU TEKNOLOGIKOA (AZTI)

- Ez dago jasota Babeslaritzari jakinarazi izana fundazioak 2006an bere gobernu organoekin eginiko autokontratazioak. Jakinarazpen hori nahitaez egin beharrekoa da EAEko Industriaren Legeko (8/2004 Legea, 2004ko azaroaren 12koa) 3.3 xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituz, autokontratazioa egiten denetik hilabeteko epean. Orobat, Babeslaritzari bidali beharreko urteko oroitidazkian (12/1994 Legeko 27. artikuluan xedatua) ez dago jasota.

### III.2.3 KALITATEA FUNDAZIOA

- Aizkolari txapelketari babesa emateko espedienteak (36 mila euro) aztertu dugu. Espediente horretan, ez dago jasota babes hori justifikatuko lukeen ikus-entzuleei eta publizitate eraginari buruzko azterlanik, ez eta babes horrengatik ordaindu beharreko zenbatekoa justifikatzeko txostenik ere. Orobat, ez da itundutako baldintzak arautuko dituen kontratu batean edo dokumentu baliokide batean formalizatu.
- Fundazioak lankidetzaren hitzarmena izenpetu du, nekazaritza ekologikoan diharduten ustiategiak eta elikagai ekologikoak sustatu, hobetu eta indartzearen, Ekonekazaritzarekin. Ekonekazaritza da Euskadiko Nekazaritza Ekologikoko Federakuntza, eta nekazaritza ekologikoaren hiru lurralde elkarteak koordinatzen dituen organoa: Biolur (Gipuzkoa), Bionekazaritza (Araba) eta Ekolur (Bizkaia). Hitzarmena diru laguntzazkoa da, 75 mila euroren zenbatekoa du, eta urtebeteko epea du. Hitzarmenak ez du justifikatzen ordaindu beharreko prezioaren arrazoizkotasuna. Alde horretatik, ez du betetzen 1/1997 Dekretua (1997ko azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Ogasun Nagusia Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena).





### **III.2.4 NEKAZARITZA ELIKAGAIEN SEGURTASUNeko EUSKAL ERAKUNDEA (ELIKA)**

- Fundazioari laga zaio EAEko Administrazioaren jabetzakoa den eta Neiker, S.A. sozietateak administratzen duen lokal baten erabilera. Lokal horrengatik 2006an 10 mila euro ordaindu ditu, errentamenduarengatik eta zerbitzuengatik. Ez dago lagatze horren baldintzak arautzeko kontratutik, eta ez da justifikatu fundazioak Neiker, S.A. sozietateari ordaindutako zenbatekoa.

### **III.3 LANGILEAK KONTRATATZEA ETA HAUTATZEA**

#### **III.3.1 BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA FUNDAZIOA**

- Lan kontratu finkoko bi langile kontratatzean publizitatea egin da, eta kontratazioa kanpo aholkulari baten bitartez egin da. Hala ere, prozeduran ez dago proben eta balioztatutako agirien aski ebidentziarik. Beraz, ez da bermatu merezimendu eta gaitasun printzipioak bete izana.

#### **III.3.2 GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA FUNDAZIOA**

- Fundazioko zuzendaria bitarteko kontratuarekin diharduen teknikaria da, Udalak bere garaian museoan lan egiteko kontratatua. Hasieratik jardun du zuzendari lanpostuan, baina ez zen horretarako kontratua formalizatu. 2010eko apirilaren 15ean, goi zuzendaritzako kontratu bat formalizatu zen.

#### **III.3.3 MAKINA ERREMINTA ARLOKO PRESTAKUNTZA TEKNIKORAKO FUNDAZIOA**

- Lan kontratu finkoarekin hiru langile kontratatzean, ez dago aski ebidentziarik, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete izanari dagokionez. Badituzte egindako elkarrizketei eta jasotako curriculumei buruzko agiriak, baina ez dago jasota balioztatutako alderdietako puntu kopuruak eta azken sailkapena azalduko dituen txostenik.

#### **III.3.4 EUSKAL HERRIKO GOI MAILAKO MUSIKA IKASTEGIRAKO FUNDAZIO PRIBATUA (MUSIKENE)**

- Lan kontratu finkoko bost langile kontratatzean, publizitatea egin da Langairen webgunearen eta prentsan argitaratutako iragarki baten bidez. Erabilitako prozeduran (probak eta elkarrizketak), ez dago jasota txosten bat, balioztatutako alderdietako puntu kopuruak eta azken sailkapena azalduko dituen. Beraz, ez dira behar adina errespetatu merezimendu eta gaitasun printzipioak.
- Fundazioak ez du konturako atxikipenik egiten, gauzako ordainketengatik, irakasleei beren etxeetatik egindako joan-etorrien gastuak ordaintzeko emandako kopuruetan (952 mila euro).



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- Arte zuzendariak, astean 11 eskola ordu emateagatik, 13 mila euro jaso zituen urtean. Haren kontratuan ez dago bateragarritasunik, eta ez dago patronatuaren baimenik.

### III.3.5 OSASUN BERRIKUNTZA ETA IKERKETARAKO EUSKAL FUNDAZIOA (BIOEF)

- Lan kontratu finkoarekin langile bat kontratatzean, publizitatea egin da, kanpo aholkulari baten bitartez. Hala ere, ez dago proben eta balioztatutako agirien aski ebidentziarik, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete izana bermatzeko.
- Fundazioan, badira goi zuzendaritzako hiru kontratu 1382/1985 Errege Dekretuan arautuak: bat, negozio unitateko zuzendari bakoitzarena; eta bestea, administratzailearena. Horrelako kontratuak urriak dira aztertutako gainerako fundazioetan (ikus A.3). Garrantzi nabarmeneko zereginak egiteko ardura berezia duen pertsonarekin egiteko kontratuak dira.

### III.3.6 NEKAZARITZA ELIKAGAIEN SEGURTASUNEO EUSKAL ERAKUNDEA (ELIKA)

- Ordainsariko gehikuntzek, 2006 arte, % 41 handitu dute 2002an sinatutako goi zuzendaritzako kontratuaren zenbatekoa. Gehikuntza horiek fundazioko patronatuak onartu dituenik ez dago jasota, nahiz eta kontratuan hala egin beharko zela zehaztuta zegoen.

Hitzarmenean zehaztutako 2006ko ordainsari aldakorra ordaindu da eta oker 2007an kontabilizatu da, 5,5 mila euroan, dagokion PFEZa atxiki gabe. Gainera, emaitza negatiboak izan dituzte; beraz, ez dirudi arrazoizkoa helburuak lortzeagatik ordainsari aldakorra, halako egoeran izanda.

### III.3.7 ALDERDI OROKORRAK

- Izangaiak hautatzeko kanpo aholkulariengana jotzen denean, lanpostua betetzeko eskaera egin duten izangai guztien eta fundazio bakoitzari proposatutakoak zehazteko egindako urratsen txosten zehaztua eskatu behar da.
- 2006ko ekitaldirako ordainsari gehikuntzak, aztertutako fundazioetariko bakoitzean dagokion patronatuak onartuak, ez dute irizpide homogeneous: % 4,8tik % 2,9ra bitartekoak dira, nahiz eta EAeko Aurrekontuen Legeak ekitaldi horretarako onartutako gehikuntza erreferentziatzat erabili beharko litzatekeena % 2 izan zen (ikus A.3). Beste alde batetik, aztertutako fundazioetatik hirutan, badira ordainsari aldakorrak; ordainsari horiek aztertu beharko lirateke, ordainsariok ordaintzea arrazoizko egiten duten baldintza objektibo eta balioztagarriak zein diren zehazteko.
- II.2 idatz zatiko iruzkinean azaldu denez, Azti eta Elika fundazioetan obra edo zerbitzuagatik aldi baterako kontratuak, zereginak pilatu direlako, kontratu mugagabe bihurtu dira.



Finko bihurtzen diren mota horretako kontratuek denboran jarraipena izan dezaten saihesteko, arreta berezia eskaini behar zaie indarrean den legedian zehaztuta dauden aldi baterako kontrataziorako formulei, eta une egokian egin behar dira langileak kontratatzekeo deialdiak, aplikatzekoak diren berdintasun, merezimendu eta gaitasuneko oinarritzko printzipioak betetzea ziurtaturik.

- Aztertutako fundazioetan diren goi zuzendaritzako zazpi kontratuak (ikus A.3) horietako hiru, fundazio batekoak 1985eko abuztuaren 1ean onetsitako 1382/1985 Errege Dekretuak arautzen ditu. Kontratu horiek aztertuta, ez dugu aurkitu fundazioari galera ekonomiko larria eragingo liokeen klausularik. Hala ere, komeni litzateke, etorkizuneko ekitaldietarako, kontuan hartzea EAEko arautegian ezarritakoa (14/88 Legea, 1988ko urriaren 28koa, goi karguen ordainsariei buruzkoa; eta 130/99 Dekretua, 1999ko otsailaren 23koa, zuzenbide pribatuko ente publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendaritza taldekideen estatutu pertsonala arautzeko dena).

### **III.4 ADMINISTRAZIO SARREREN ETA GASTUEN HELBURUA**

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legeko (12/1994 Legea, 1994ko ekainaren 17koa) 30. artikuluan, diru sarrerren helburuari buruz, arautu du gutxienez diru sarrerren % 70 bideratuko direla fundazio borondateak zehaztutako xedeetara, eta gainerakoa administrazio gastuak kendu eta gero fundazio hornidura gehitzera bideratuko dela.

404/94 Dekretuko 55. artikuluan, administrazio gastutzat sartuta zeuden, gobernu organoen gastuak ez ezik, langileen ordainsari guztiak ere. Hor xedatutakoa zorrotz aplikatzera, % 70 horren helburuaren baldintza ez luke beteko aztertutako fundazioetatik hamarrek.

Aزتtertutako fundazio guztiek gutxienez ehuneko hori bideratzen dute fundazio xedeetara, baldin administrazio gastutzat fundazioetako gobernu edo kudeaketa organoek egindako gastuak besterik hartzen ez bada. Eta halaxe egin behar dela ezarrita dago, berariaz, 100/2007 Dekretuan (2007ko ekainaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen eta 404/94 Dekretua indargabetzen duena).

### **III.5 BESTELAKO ALDERDIAK**

#### **III.5.1 EKAIN FUNDAZIOA**

- Ekain Fundazioaren kontuek kontabilitatean ez dute jasotzen fundazioa eratu aurretik Zestoako Udalak Ekaingo haitzuloaren kopia egitera bideratutako ondasun eta inbertsioen balioa. Horretarako egindako inbentarioan ageri denez, fundazioaren esku jarri ziren ondasun horiek. Bestalde, 2008ko azaroaren 28an, hitzarmena sinatu zuten Zestoako Udalak eta fundazioak, 75 urterako, kopia eraiki zen lurren azalera eskubideari eta Lili jauregiaren eta jauregi ondoko lurren erabilera lagatzeari buruz.

Haitzuloa aurkitu zenetik, ezin dudatuzko historia eta ondare balioa duten ondasun eta dokumentuak agertu dira, eta horiek zaindu eta mantentzeko ardura duten erakundeetatik berreskuratzen saiatu beharko luke Ekain Fundazioak.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### III.5.2 EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRA (EGO) FUNDAZIOA

- Ez dago fundazioaren patronatuaren erabakien aktarik, fundazioa sortu zenetik 2006. urtearen hasiera arte. Eta 2006tik aurrerakoak (urte bakoitzeko bat) Fundazioen Erregistroan legeztatu dira 2009. urtean. Fundazioen Erregistroan 1997ko eratze idazpena baizik ez da jaso, eta erregistratzeke daude patroien aldaketei, ahalduntzeei eta abarri dagozkien erabaki guztiak.
- Sozietate kudeatzailearen esku utzi dira, praktikan, fundazioaren jardueraren kudeaketa arrunt guztiak. Ez dago ahamenen eskuordetzerik, eta eskuordetze hori patronatuko kide bati baizik ezin dakiogke egin, salbu eta fundazioaren patronatuak onartzekoak diren aurrekontua eta urteko kontuak onartzeko.

### III.5.3 GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA FUNDAZIOA

- Gernikako Bakearen Museoa Fundazioak ez du formalizatu, eta ez du bere balantzeko aktiboan eta pasiboan kontabilizatu, museoa daukan eraikinaren erabilera eskubidea; ez eta lagatzeko datan ziren ondare elementuak ere.

Beste alde batetik, komeni litzateke ondare elementuen segimendu eta kontrola egitea, hala duten berezko balioagatik, nola elementu horien segurtasun eta osotasuna zaintzeagatik. Egiten diren kontrol eta inbentarioen ebidentzia utzi beharko litzateke.

- Fundazioak aurkeztutako urteko kontuen oroitidazkian, balantzearen eta emaitza kontuaren edukia osatu eta esplikatuz beharko luke. Hala ere, beharrezko xehetasun batzuk falta dira; eta, aitzitik, sartuta daude fundazioaren jarduerari aplikagarri ez zaizkion oharrak.

### III.5.4 LANBIDE PRESTAKUNTZARAKO EUSKAL FUNDAZIOA (HOBETUZ)

- Hobetuz Fundazioaren egoitzak Bilbon kokaleku dituen bulegoen eta garajeen errentak gehikuntza nabarmena izan du azken ekitaldian. 2006an, 209 mila euro ordaindu ziren, eta horrek komenigarri egiten du beste kokalekuren batera aldatzeko aukera aztertzea.

### III.5.5 ALDERDI OROKORRAK

- IV.I taulan zehaztuta dagoenez, aztertutako hamabost fundazioetatik hamarretan soberakin positiboak izan dira; batzuetan, oso handiak. Soberakin horiei dagokienez, fundazio bakoitzaren finantzaketa beharrak zorrotzago kontrolatu beharko lirateke, urtero emandako diru laguntzak benetako beharretara egokituz eta, neurriz gaineko finantzaketa dakartenez, hala dagokionean soberakin horiek itzultzea galdatuz.

Aztertutako hamabost fundazioetatik bostetan, soberakin negatiboak izan dira. Aipatzekoa da, handienak direlako eta auditoria txostenean salbuespen direlako, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegirako Fundazio Pribatuarena eta Elika Fundazioarena.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## IV. URTEKO KONTUAK, 2006KO ABENDUAREN 31N


### IV.1 EGOERA BALANTZEA

Euroak, milakotan

EGOERA BALANTZEA	DIPC	Euskadiko			Soziolog.		Kalitatea	
		EKAIN	Film.	Juridikoa	AZTI	EGO	Fundaz.	
Ibilgetu ezmateriala.....	106	1	1	10	221	-	321	
Ibilgetu materiala.....	4.520	1.446	2.536	339	7.984	15	242	
Finantza ibilgetua.....	-	-	-	-	528	-	5.092	
Zordunak.....	2.274	2.563	281	41	8.967	44	3.369	
Izakinak (lurrak / bestelakoak).....	-	-	1	-	-	-	58	
Finantzetako inbertsioak.....	-	-	-	129	1.167	-	2.580	
Diruzaintza.....	1.262	722	21	107	1.712	123	73	
Aldizkapenengatiko doiketak.....	-	-	-	-	107	-	84	
<b>AKTIBOA</b>	<b>8.162</b>	<b>4.732</b>	<b>2.840</b>	<b>626</b>	<b>20.686</b>	<b>182</b>	<b>11.819</b>	
Hasierako fundazio hornidura.....	36	18	18	3	3.687	120	581	
Metatutako soberakinak.....	1.718	14	1.238	205	1.241	(4)	2.002	
Funts propioak, guztira.....	1.754	32	1.256	208	4.928	116	2.583	
Hainbat ek. banatzeko diru sarrerak.....	4.016	4.678	1.158	333	3.480	-	4.256	
Arrisku eta gastuetarako hornidura.....	-	-	-	-	-	-	2.478	
Epe luzerako hartzekodunak.....	-	-	-	-	5.648	-	1.409	
Hartzekodunak, epe laburrera.....	2.392	22	426	85	6.630	66	1.093	
<b>PASIBOA</b>	<b>8.162</b>	<b>4.732</b>	<b>2.840</b>	<b>626</b>	<b>20.686</b>	<b>182</b>	<b>11.819</b>	

Euroak, milakotan

EGOERA BALANTZEA	Arte Ederren		Bakearen	Mak. Errem.	EHko GM			ELIKA
	Museoa	Museoa	Prestak.	Musika IFPF	BIOEF	HOBETUZ		
Ibilgetu ezmateriala.....	15.273	2	353	13	93	-	-	
Ibilgetu materiala.....	14.273	53	5.524	2.082	128	27	168	
Finantza ibilgetua.....	-	-	29	-	3	34	-	
Zordunak.....	4.027	36	1.483	195	2.228	3.792	115	
Izakinak (lurrak / bestelakoak).....	440	23	6	-	-	-	-	
Finantzetako inbertsioak.....	3	-	276	-	-	40	-	
Diruzaintza.....	2.390	150	31	525	4.832	3.605	179	
Aldizkapenengatiko doiketak.....	220	-	21	79	-	2	-	
<b>AKTIBOA</b>	<b>36.626</b>	<b>264</b>	<b>7.723</b>	<b>2.894</b>	<b>7.284</b>	<b>7.500</b>	<b>462</b>	
Hasierako fundazio hornidura.....	90	18	7.700	1.797	60	1.412	397	
Metatutako soberakinak.....	(1)	179	(1.925)	(2.414)	(494)	422	(139)	
Funts propioak, guztira.....	89	197	5.775	(617)	(434)	1.834	258	
Hainbat ek. banatzeko diru sarrerak.....	29.202	-	265	2.206	2.535	27	-	
Arrisku eta gastuetarako hornidura.....	-	-	-	-	14	-	-	
Epe luzerako hartzekodunak.....	4.777	-	339	-	-	-	-	
Hartzekodunak, epe laburrera.....	2.558	67	1.344	1.305	5.169	5.639	204	
<b>PASIBOA</b>	<b>36.626</b>	<b>264</b>	<b>7.723</b>	<b>2.894</b>	<b>7.284</b>	<b>7.500</b>	<b>462</b>	





Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## FUNDAZIOEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI JARRITAKO ALEGAZIOAK, ZEINETAN EUSKAL SEKTORE PUBLIKOA NAGUSI DEN, 2006

\*\*\*\* Pertsona fisikoen eta juridikoen izenak eta identifikagarri gerta daitezkeen datuak ezabatu dira.

### ADMINISTRAZIOKO ERREGISTROEN ETA TOKI ARAUBIDEAREN ZUZENDARIAK AURKEZTU DITUEN ALEGAZIOAK

LEHENENGOA. 2010eko urriaren 21ean Zerbitzu honetan “FUNDAZIOEN FISKALIZAZIO.TXOSTENA ZEINETAN EUSKAL SEKTORE PUBLIKOA NAGUSIA DEN” izeneko jaso dugu.

BIGARRENA. Bidaltzeko ofizioan aipatzen den bezala txosten hori zuzendaritza honetara bidaltzen da "behin-behineko" agiri bezala eta egoki deritzezun agiriak edo egiaztapenak aurkeztu edo alegatu ditzazun.

HIRUGARRENA. Hasi baino lehenago esan beharra dago fundazioen alorrean Herri Kontuen Euskal Epaitegiak bete duen lana bikaina eta oso baliagarria dela eta lan hori, txostenean bertan ikusten den bezala, azken idazketa eman aurretiko azken aldi honetan Zuzendaritza honen langileekin elkarlanean burutu dela.

Zuzendaritza honek honako alegazio hauek egin ditu:

Lehenbizi eta fiskalizazio txostenari dagokionez, ez dugu aurka ezer esatekorik. Alderantziz, Herri Kontuen Euskal Epaitegia zoriondu behar dugu beteriko lanagatik. Lan hori, hain zuzen ere, Fundazioen Babeslaritzak betetzen duen lanerako mesedegarria da.

Bigarrenik, eta edukari dagokionez, "Fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza" izeneko III.1 atalari dagokionez zerbait argitu eta azaldu behar da.

Txostenean, Babeslaritzari dagokionez, adierazten da bere eginkizuna gehiago dela jarduketak erregistratu eta nahitaezkoa agiriak biltzea, informazioa eta aholku ematea baino. Epaitegiari jakinarazi behar zaio azken urtean eta, eta are zehatzago, Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Zuzendaritza sortu zenetik, zerbitzua aholkularitzarantz zuzendu dela, eta horrela, Erregistroaren gaitz endemikoari aurre agin zaio fundazioekin harremanetan jarriz eta fundazio bakoitzaren arazoan arabera laguntza, aholkularitza eta konponbideak emanaz. Beraz, argi ikusi ahal da aholkularitzaren zeregina goraka joan dela.

Espedienteetan izandako atzerapenak sortutako arazoei dagokienez eta hiru urteko atzerapenak ere aipatzen ari garela kontuan hartuta, honako hau esan behar da: Epaitegiak



hasitako eskabidea egin zen unean bertan nolako egoera zegoen ezin dugu jakin orduan zerbitzuan ez geundelako. Alabaina, zerbitzura heltzean hasierako egoera nolakoa zen argitu daiteke. Atzerapen bat finkatu bat aurkitu genuen eta atzerapenari buruz eginiko kalkuluen arabera geldirik 450 espediente inguru zeuden. Gainera, erregistratu gabe edo izapidetu gabe zeuden espedienteen kopuru zehaztugabe bat zegoen eta izapidetzeko oso arazo larri bat. Urte batean 2009ko irailetik 2010eko irailera arte, hain zuzen ere, 1100 baino administrazio espediente gehiago ebatzi dugu eta gaur egun irekita dauzkagun espedienteak ez dira 40 baino gehiago eta, hamalau espediente fundazio berria eratzeko.

Egoera horri esker, 2011. urterako aukera dugu aurre egiteko Epaitegiak bere txostenean adierazten duen gaiari, tradizioz sekula bat ere ukitu ez den gaiari, hain zuzen. Berau, hain zuzen ere, fundazioen analisi eta kontrola da, baita bere kontuan eta jarduera ere. Bestalde, aipatu behar da gure informatika aplikazioa aldatu dugula urteko kontuak jaso eta sisteman sartu ditzan urteko kontuei buruzko aplikazioa espedienteak –orain arte ixten ez zirenak– ixteko helburuz. Gainera espediente horien izapideak hobetu ditugu beren-beregi kontratatu den kontsultariaren laguntzaz baliaturik eta Euskal Herriko notarioekin elkarreragingarritasuna lantzen ari gara beste dokumentu batzuen artean urteko kontuak ere telematikoki aurkezteko aukera izan dezaten. Hausnarketarako prozesua ireki dugu kontsultariarekin, zerbitzuarekin berberarekin eta EJI Erekin honako gai honi buruz: 2011n kontuak aurkeztu behar direla eta fundazioen kontuak telematikoki aurkeztea. Prozesu honen zergatia da Epaitegiak ere sumatu duen bezala fundazioei buruzko informazioa prozesu normalizatu batean batu nahi izatea eta horretarako eskuliburu bat edo behar bezalako jarraibide zehatzak prestatuko dira. Horretarako, prestatzen ari den web orrietan ereduak antolatuko dira eta hori guztia fundazioei emango zaie.

Beste helburu bat izan daiteke epe ertainean fundazioak kontrolatzeko jarduera bat garatzea.

## **DONOSTIA INTERNATIONAL PHYSICS CENTER FUNDAZIOAK AURKEZTU DITUEN ALEGAZIOAK**

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako “Euskal Arlo Publikoan posizio nagusia duten fundazioen fiskalizazio-emaitzak, 2006” txostenean bildutako ondorioekin lotuta, Donostia International Physics Center (DIPC) fundazioak, berari zuzenean lotuta txostenean jasotzen diren gaiei dagokienean, honako alegazio hauek aurkezten ditu:

### **ALEGAZIOAK**

#### **A.- TXOSTENAREN ONDORIOEN INGURUKO ALEGAZIOAK.**

Lehena.- Fiskalizazio-txostenarekiko iritzi orokorrak

1.- Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Seigarren Azken Xedapenak Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen hainbat alderdi aldatu zituen.





Testu berriaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoaren barne sartuko dira, beste hainbaten artean, Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoko fundazioak (Legearen testu bategina biltzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegilearen 7.4. artikulua idazketa berria).

Ondareari buruzko Legea 2006ko azaroaren 17an zigortu zuten, eta 2006ko abenduaren 11n argitaratu zuten, argitaratu eta hilabetera indarrean sartuta, Legeak berak horrela xedatu baitzuen. Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen xedapen berriak 2007ko urtarrilaren 12an sartu ziren indarrean.

2.- Egoera berri honen arabera, Ondareari buruzko Legearen xedapenak berak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeari III. Tituluko V. Kapituluak gehitu dio, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoaren fundazioei buruzkoa. Bertan zehazten da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioak honako hauek direla: “bere patronatuko kide gehienak arlo publiko hori osatzen duten erakundeek izendatzen dituztenak”. Betiere bertan bi kasu hauetakoren bat gertatzen bada: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiak edo Autonomia Erkidegoko arlo publikoko gainerako erakundeek, zuzenean edo zeharka, ekarpen nagusia egitea; edo bestetik, bere sorrerako ondarea, modu iraunkorrean, ehuneko berrogeita hamar baino gehiagotan, erakunde horiek jarri edo utzitako ondasun edo eskubidez osatuta egotea. Bertan oinarrituta, Legeari dagokionean, Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoko Fundazioak izateko baldintza beteko duten Fundazioentzako hainbat obligazio finkatu dira.

3.- 2006. urtean DIPC Fundazioaren Ondarean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiaren partaidetza minoritarioa zen, bere ekarpen ekonomikoak bezala, erdiaren azpitik.

4.- Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako fiskalizazio-txostena 2006ko ekitaldiari dagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Ondareari buruzko Legearen idazketa berriak ezarritako Euskal Autonomia Erkidegoaren Ogasun Nagusia Antolatzeko Printzipioen Legearen xedapen berriak indarrean sartu aurretik.

Adierazitako testuinguru arauemailean, bere izaera juridiko pribatua kontuan hartuta, Fundazioa ez zegoen Administrazio Publikoen kontratuei buruzko legeriaren xedapenak errespetatzera behartua.

Hala eta guztiz ere, kontratazio-moten esparruan Fundazioaren funtzionamendu arruntak publizitate- eta lehia-printzipioak bermatzen zituen, betiere koherentzia, funtzionaltasun eta eraginkortasuneko helburuen barruan.

5.- Herri Kontuen Euskal Epaitegiak fiskalizazio-txostena egin zuen unetik, Fundazioak, hala egiten ez zuen kasuetan, kontratazioari buruzko legerian ezarritako printzipioak errespetatuz esleipen-prozedurak gauzatu ditu (informatikako materiala erosi, bidaia agentzietako eta ostatuko zerbitzuak eman, zaintza-zerbitzua, eta abar).

Bigarrena.- Fiskalizazio-txostenean adierazitako objektioei buruzko kontsiderazio espezifikoak.



2.- II.1.1. epigrafea (beste bost espediente). IV. eraikina birmoldatzea. IV. eraikinaren birmoldatze-lanak aurreko eraikinak birmoldatu zituen enpresa berari esleitu zitzaizkion. Instalazio guztien arteko homogeneousuna bermatzeko modu eraginkorra zen.

Zaintza-zerbitzua. DIPC Fundazioaren instalazioak Ibaetako Unibertsitate Campusean (UPV/EHU) daude. EHUK DIPC sortu zuen. Bere ekarpenen artean dago DIPCren instalazioak Campuseko beste zentro baten moduan hartzea ahots eta datuen sareari, elektrizitate- eta ur-hornikuntzari, eta lorategien zaintzari dagokienean. Era berean, Campuseko beste zentroek dituzten baldintzekin, Unibertsitateak zentro honen zaintza ere bere gain hartzen du. Beraz, gauez eta asteburutan zaintza-zerbitzua dago bertan. Baina DIPCk egun osoko zaintza behar zuenez, Unibertsitateak betetzen ez zuen zatirako zaintza-zerbitzua kontratatu zuen DIPCk berak, hau da, 8:00etatik 20:00ak arte. Zerbitzuaren bateragarritasuna bermatzeko modu egokiena EHUKo Ibaetako Campusaren zaintza-zerbitzua eskaintzen zuen enpresa bera kontratatzea zen. DIPCk ordaindu arren, ikuspegi materialetik begiratuta, partzialki eskaintako zerbitzuak “zabaltzea” baino ez zuten egin.

Pentium IV informatikako ekipoa. Une horretan DIPCk bulego osatutako eraikin berria zuen, eta mahai gaineko ordenagailuak behar zituzten. Kalkulu Zentroak jada zentroko beste XLAN ordenagailutako irudiak zituen. Ordenagailu horiek sistema eragilea, ofimatikako programak eta zentroaren lizentzia zuten hainbat programa zientifiko zituzten, DIPCko ikerlariak ikertu ahal izateko moduan konfiguratuta. Ekipo berriak martxan jartzeko modu logiko eta azkarrena zen ordenagailuak erostea eta ordenagailu horien barruko gailuak (plaka nagusiak, ethernet txartelak, bideo-txartelak eta abar) zentroak jada bazituen irudietara egokitzeko modukoak izatea. Irudi horiek aurretik instalatutako beste XLAN ordenagailutatik sortu zituzten.

3.- II.2.1. epigrafea. 2006. urtean Lehendakariaren idazkariaren lanpostua betetzeko aurretiko hautaketa egiteko eskatu zitzaion gestoria bati. Probintzian gehien saltzen zen egunkarian (El Diario Vasco) iragarki bat argitaratu zen. Gestoriak aurretiko hautaketa prozesu egin zuen. Horretarako ingeleseko azterketa (enpresa aditu bat azpikontratata) eta beste hainbat azterketa (informatikako tresnak menderatzea) egin zituen eta Curriculum Vitae bidez hautagai bakoitzak aurkeztutako meritua baloratu zituen. Gestoriak txosten bat aurkeztu zion DIPCri postua betetzeko sei hautagaien izena emanda. Azterketetan hautagai bakoitzak lortutako emaitzak eta egindako aurreko elkarrizketetatik ateratako ondorioak ere aurkeztu zituzten gestoriak. DIPCko arduradunek (idazkaria eta administraria) sei hautagaiak elkarrizketatu zituzten eta, elkarrizketaren arabera, postua betetzeko ezaugarri egokienak zituen pertsona kontratatzeke proposatu zuten, Lehendakariaren idazkari izateak suposatzen zuen erlazio berezia kontuan hartuta. Gainera, hautatutako pertsona horrek ingeleseko azterketan (erabakigarria gurea bezalako ikerketa-zentro batean) eta informatikako tresnen azterketan emaitza onenak lortu zituen.

Aldi baterako kontratua egiteko erabaki bazen ere, kontratuaren jarraipen-egoera eman zenez bere kontratua mugagabe egin zen. Beraz ez zen egindakoa bezalako beste prozesu bat egin.



Egin behar zuten kontratu-mota zela-eta –aldi baterako edo mugagabea– aukeraketa-prozesuan inork ez zuen baldintzarik jarri, ez Fundazioaren aldetik ez eta hautagaien aldetik ere. Hautaketa-prozesua amaitu ondoren aipatu zen baldintza baino ez zen izan.

## **EUSKAL FILMATEGIA FUNDAZIOAK AURKEZTU DITUEN ALEGAZIOAK**

### **A) TXOSTENAREN ONDORIOEN ALEGAZIOAK:**

#### **II.EPIGRAFEA, 1.2:**

1.- Telezinema altzaria eskuratzea eta instalatzea:

Lehenik eta behin, adierazi nahi dugu Euskadiko Filmategia Fundazioak 2008ko uztailaren 15ean Patronatuan egindako bileran onartu zituela kontratazio arauak.

Telezinema altzaria deitutakoa esleitzeko publizitateari, lizitazio prozedurari eta erosketa esleitzeko moduari dagokienez, zehaztu behar da Noticias de Gipuzkoa, El Diario Vasco eta El Correo egunkarietan iragarki bana argitaratu zela (hiru iragarkien eta horien diseinuaren eta argitaratzearen fakturen fotokopiak erantsi ditugu). Halaber, azpimarratu nahi dugu Inbertsioen Esleipenen Txosteneko 1. puntuan jaso genituela (txostenaren kopia erantsi dugu) lizitazio prozesura aurkeztutako enpresak, enpresa horien eskaintza ekonomikoak eta esleipen unean aplikatu zen hautapen irizpidea. Horrez gain, aipatutako txostena onartu zuen patronatuaren bileraren akta ere erantsi dugu.

Horregatik guztiagatik, gure ustez, ekipamendu hori eskuratzerakoan publizitatearen, lizitazio prozeduraren eta esleipen moduaren baldintzak behar bezala bete genituen.

2.- Magnetoskopioak erostea:

Magnetoskopioak erosteko ere aipatutako egunkarietan iragarki bana argitaratu genuen (horien kopia eta iragarkien diseinuaren eta argitaratzearen faktura ere helarazten dizkizugu). Horrez gain, azpimarratu nahi dugu Inbertsioen Esleipenen Txosteneko 3. puntuan jaso genituela (txostenaren kopia ere helarazten dizut), esleipen prozesura aurkeztutako enpresak, enpresa horien eskaintza ekonomikoak eta esleipen unean aplikatu zen hautapen irizpidea.

Horregatik guztiagatik, gure ustez, ekipamendu hori eskuratzerakoan publizitate, lizitazio prozeduraren eta esleipen moduaren baldintzak zuzen bete genituen.

3.- MWA telezine ekipamendua:

Ekipamendu hori erosterakoan ere aipatutako egunkarietan iragarki bana argitaratu genuen (hiru iragarkien kopiak eta horien diseinuaren eta argitaratzearen fakturak ere helarazten dizkizugu). Bestalde, Inbertsioen Esleipenen Txosteneko 2. puntuan zehaztu genituen



(txosten horren kopia ere helarazten dizut) aurkeztutako eskaintzak eta esleipenean aplikatutako irizpideak, baina transkripzio akats batengatik, ez da aipatzen hautatutako enpresa zein izan zen (Videoplay).

## **B) ERANSKINEN ALEGAZIOAK:**

### **A.5 EPIGRAFEA:**

1.- Fundazioen erregistroan aktak aurkeztea:

Legea ez ezagutzeak salbuesten ez gaituen arren, Euskadiko Filmategia Fundazioak ez zituen patronatuko aktak Fundazioen Erregistroa zegoen unean bidali, ez zekiela horrelakorik egin behar zuenik.

Akta horiek Fundazioen Erregistroan aurkeztu zituen Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideek ikuskatzearen unean horrela eskatu zutelako. Honekin batera, 2005., 2006., 2007. eta 2008. ekitaldietako patronatuaren bileren aktak legekoak direla eta Fundazioen Erregistroan aurkeztuta daudela ziurtatzen duen dokumentua helarazten dizugu.

2.- Kontabilitate liburuak aurkeztea:

Kontabilitate dokumentazioari dagokionez, esan behar dugu Fundazioen Erregistroak eskatutako kontabilitate informazioa aurkeztu duela Euskadiko Filmategia Fundazioak (batuketan eta saldoaren balantzea, egoera balantzea, emaitzen kontuak, jardueren memoria, aurreko ekitaldiko diru-sarreraren eta gastuen aurrekontuaren likidazioa, patronatuak urteko kontuak onartzen dituela ziurtatzen duen dokumentua eta urteko kontuen ikuskaritza). Honekin batera, Fundazioen Babeslaritzaren idazkiak ere erantsi ditugu, zenbait dokumentu aurkez ditzazula eskatzeko.

Hala ere, Euskadiko Filmategiak hemendik aurrera Fundazioen Erregistroan liburu horiek aurkezteko konpromisoa hartzen du.

## **OÑATIKO LEGE SOZIOLOGIAKO NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK AURKEZTU DITUEN ALEGAZIOAK**

Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundeak (LSNE) euskal sektore publikoa nagusi duten Fundazioen Fiskalizazio Ondorioak jaso ditu Herri-Kontuen Euskal Epaitegiarengandik, egoki iritzitako alegazioak aurkez dituzan; helburu horrekin igortzen dizuegu honako idatzi hau.

Honen bidez jakinarazi nahi dizuegu Fundazioaren Patronatua 14 kidek osatzen dutela eta horietatik 7 Eusko Jaurlaritzak izendatzen dituela; horietako bat Lehendakari hautatua izango da. Hautagaitza beti Justizia Sailburuorde edo Sailburuari dagokio. Gainerako 7 kideak, berriz, Nazioarteko Soziologia Elkarteak, Soziologia Juridikoaren Ikerketa Batzordeak (AISIRCSL) izendatzen ditu.



Erreferentzia-gai diren kontuen fiskalizazioa 2006ko urteari dagokio.

Berebat, jakinarazten dizuegu, egun Eusko Jaurlaritzak izendatutako kideetarik batek berak ere ez zuela posizio hori 2006ko urtean. Halaber, hasieratik ni neu (\*\*\*\*) izan naiz LSNEren Zuzendari Administratzaile-Kudeatzailea eta kontuen arduraduna.

Erregistroan aurkeztutako dokumentazioari dagokionez, jakinarazi nahi dizuegu, Patronatuko bileren batzar-agiriak urtero aurkezten direla. Honekin batera, 1996ko bileren batzar-agirien kopia txertatu dugu.

## **AZTI - ITSAS ETA ELIKAGAIEN ZENTRUA FUNDAZIOAK AURKEZTU DITUEN ALEGAZIOAK**

Oro har, alderdi honek adierazi nahi du, haren ustez, Fiskalizazio Txostenean xehatzen diren lege-hauste gehienak ez direla gertatu; jarraian xehetasunez aztertuko dugu hori. Horrenbestez, alderdi honen iritziz, Fiskalizazio Txosten hori aldatu egin behar da.

### **A. "LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA" EPIGRAFEARI JARRITAKO ALEGAZIOAK.**

#### **A) II. 1 ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK ESKURATZEA.**

Aldez aurretik esan beharra dago, alderdi honen iritziz, atal honetan adierazten diren lege-haustek ezin direla jo behar bezala arrazoituztat; batez ere, eta ikusten den bezala, ustezko lege-haustek modu orokorrean aipatzen direlako, inolako zehaztasunik eman gabe.

Hori dela eta, alegazio hauen bidez, aipatutako lege-haustek banaka azaldu eta eztabaidatuko dira, honekin hasita:

*1. Derioko bulego-eraikin berriaren eraikuntzaren esleipenean (6.591 mila eurokoa), APKLTBk enpresen ahalmen, publizitate, lizitazio-prozedura eta esleitze-moduei buruz ematen dituen aginduak urratu ziren.*

Alderdi hau ez dator bat azaldutakoarekin, Fiskalizazio Txostena irizpide oker batean oinarritu zela uste duelako.

Hori dela eta, aldez aurretik beharrezkotzat jotzen dugu 2006an araudi autonomikoaren pean zeuden Fundazioei aplikagarri zitzaien araubide juridikoari buruzko gogoeta batzuk egitea (alde honen iritziz, AZTI ere araudi autonomikoaren pean zegoen 2006an).

Hala, azpimarratu behar da 2005eko martxoaren 11ko 5/2005 Errege Lege Dekretuan onartutako berrikuntzak (produktibitatea bultzatzeko eta kontratazio publikoa hobetzeko premiazko berrikuntzak) Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen testu bateratuaren berrikuntzarekin osatu zirela. Testu hori (aurrerantzean, APKLTB) 2000ko ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen. Horren bidez, lege horien



esparru subjektiboa sektore publikoko fundazioen eta administrazio publikoekin sinatutako hitzarmenen alderdi jakin batzuetara hedatu zen.

Beraz, lizitazioaren unean (2006ko maiatzean) indarrean zegoen idazpenak, aipatutako 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak, hau arautzen zuen 2.1 artikuluan:

*1. “Obra-, hornikuntza-, aholkularitza- eta laguntza- eta zerbitzu-kontratuei dagokienez, obra-kontratuetan kopurua 5.278.227 eurokoa edo handiagoa bada (5.000.000 Igorpen Eskubide Bereziren (IEB) baliokidea), Balio Erantsiaren gaineko Zerga salbu, edo aipatutako beste kontratuetan, kopurua 211.129 eurokoa bada (200.000 Igorpen Eskubide Bereziren (IEB) baliokidea), enpresen ahalmenaren, publizitatearen, eskaintza-prozeduren eta esleipen-moduei buruz lege honek ezartzen dituen xedapenak bete behar dituzte hauek guztiek: aurreko artikuluan zehaztutako esparrutik kanpo geratzen diren zuzenbide publikoko erakundeek; 2003ko azaroaren 3ko Administrazio Publikoen Ondasunari buruzko 33/2003 Legearen 166 artikulua 1. ataleko c) eta d) paragrafoetan aipatzen diren merkataritza-elkarteek; eta gainerako Administrazio Publikoen baliokideak diren merkataritza-elkarteek (industria- edo merkataritza-arloetatik kanpoko interes orokorreko beharrak asetzeko sortutakoek), eta sektore publikoko fundazioek (betiere aurreko artikulua 3. ataleko b) paragrafoan adierazitako baldintzetako bat betetzen badute)”.*

6. xedapen gehigarriak, berriz, hau aurreikusten zuen:

*“2 artikulua 1. atalak (hor sartzen ez diren kontratuei dagokienez) aipatzen dituen merkataritza-elkarteek eta sektore publikoko fundazioek, nahiz kapital gehiena Administrazio Publikoena edo haien erakunde autonomoena edo zuzenbide publikoko erakundeena —zuzenean nahiz zeharka— duten gainerako merkataritza-elkarteek, beren kontratu-jarduera publizitate- eta lehia-printzipioetan oinarritu behar dute, egin beharreko eragiketa printzipio horiekin bateraezina denean izan ezik”.*

Azaldutakotik ondorioztatzen da aipatutako artikuluetan erabiltzen den “sektore publikoko fundazioak” terminoak nahasmena sortu duela beharbada, eta, ondorioz, Fiskalizazio Txostena egin den bezala egin behar izan dela, alde honen iritziz okerrekoa den premisa batean oinarrituta: hots, fiskalizatutako kontratuaren formalizatze-data.

Eta alde honek hori okerrekotzat jotzen du, hainbat arrazoiengatik.

Lehenik eta behin, AZTI Fundazioa “sektore publikoko fundazioa” kategorian sartzen duelako, une hartan EAEn kategoria hori egon ez arren.

Bigarrenik, eta aurrekoarekin zuzenean lotuta, aplikatu nahi zaizkion arauak lizitazio-urtean aplikagarriak ez zirelako.



Espainiako estatuko sektore publikoko fundazioak lege hauetan aurreikusten dira: Fundazioei buruzko 2002ko abenduaren 26ko 50/2002 Legean, 2003ko azaroaren 26ko 47/2003 Aurrekontu Lege Orokorrean, 2003ko azaroaren 17ko 38/2002 Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean eta, aipatu dugunez, 2000ko ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuan.

Baina, Euskal Autonomia Erkidegoan, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretua onartzean aldatu egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea. Hori dela eta, EAEko sektore publikoan sartzen ziren erakunde-mota berriak sortu ziren; euskal sektore publikoko fundazioak, besteak beste.

Bada, azaldu den moduan, lizitazioaren urtean figura hori jada bazegoen estatuko legedian. Hala ere, AZTI legedi autonomikoaren pean zegoen fundazioa zen; beraz, haren araubide juridikoa (izaera eta osaera barne) erkidegoko legediak zehazten zuen, eta ez estatukoak. Hori dela eta, 2007ra arte Azti ezin zen sektore publikoko fundaziotzat jo.

Hala, eta 2006ko bertsioan (lizitazioa egin zen urtea) APKLTBk bere eremu subjektiboan sektore publikoko fundazioak sartu arren, garai hartan euskal erkidegoko araudiak ez zuen aintzat hartzen figura hori. Beraz, figura hori ezin zitzaion aplikatu AZTI Fundazioari, une hartan ez baitzuen sektore publikoko fundazioaren kategoria.

Hau da, garai hartan, AZTI Fundazioa haren estatutuek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen 12/1994 Legeak ezarritakoari jarraiki zuzentzen zen, eta ez zegoen Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazio Publikoen kategoriarik.

Hala, eta azaldu dugun moduan, 2/2007 Legegintzako Dekretua indarrean jarri ondoren, Administrazio eta Merkataritzako Erakunde Autonomoek eta Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoek osatutako multzoa Erakunde Administrazio gisa hartu zen. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoa sortu zen, hauek biltzeko: Sozietate Publikoak (edozein motatako merkataritza-sozietateak, kapitalaren zati handiena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarena edo horren erakunde instituzionalena baldin bada); Sektore Publikoaren Fundazioak, hau da, haien patronatuko kideak Sektore Publikoa osatzen duten erakundeek izendatzen badituzte eta Sektore Publikoko legeak ezarritako gehienezko diru-ekarpenari buruzko oharrak betetzen badituzte; eta, azkenik, berezko izaera juridikoa duten Partzuergoak, artikulua hauetan aipatzen direnak: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 6. artikulua 5. atalean, eta kontzeptu hori definitu zuen Toki Araubidearen Oinarrien erregulazioari buruzko 1985ko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 87. artikuluan.

Laburbilduz, eta azaldu denaren arabera, AZTI erkidegoko fundazio bat zenez, erkidegoko araudira jo behar dugu: Fundazioen 12/1994 Legea, hain zuzen. Hala eta guztiz, eta lehen azaldutakoari jarraiki, araudi horrek ez ditu gure autonomia-erkidegoko fundazioak erregulatzen; izan ere, 2/2007 Legegintzako Dekretua indarrean jarri zenean definitu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko fundazio publikoak, zehazki 23. Bis artikuluan, hitzez hitzeko eduki honekin: "Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio izateko, horien patronatuetako kide gehienak sektore publikoko erakunde eskudunek izendatu behar dituzte, eta baldintza hauetakoren bat bete behar dute:



- a) *Fundazioa sortzeko behar den diru-ekarpenaren zatirik handiena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo EAeko sektore publikoaren gainerako erakundeek egitea, zuzenean edo zeharka.*
- b) *Fundazioaren ondare iraunkorraren % 50 baino gehiago aipatutako erakundeek emandako edo utzitako ondasunek edo eskubideek osatzea.”.*

Azaldutakoari jarraiki, 2007. urtetik aurrera, AZTI Fundazioa, inongo zalantzarik gabe, erkidegoko sektore publikoko fundaziotzat har daiteke, eta, horrenbestez, urte horretatik aurrera erakunde-mota horiek arautzen dituen araubide juridikoaren pean dago.

Dena dela, 2006an (lizitazioa egin zen urtean), 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren aurreikuspenak ez zitzaizkion aplikagarriak, garai hartan AZTI ez baitzen sartzen “sektore publikoko fundazioak” terminoaren barruan.

Aurretik adierazitakoa alde batera utzi gabe, eta jarraian aztertuko den moduan, nabarmendu beharra dago Fundazioak bere kontratu-jarduera publizitate- eta lehiaprintzipioetara egokitzeaz gain, APKLTBn aurreikusitako aginduak bete zituela.

Hala, Bizkaiko Parke Teknologikoko eraikin berria eta I-2B5 partzelako urbanizazio osagarriaren egikaritze-proiektuaren lehiaketa bidezko kontratazioa arautu zuten pleguak prestatu ziren.

Plegu horietan xehatzen dira kontratuaren xedea (APKLTBren 13. artikuluari jarraiki), eskatutako bermea (APKLTBren 36. artikuluari jarraiki), lizitazaileari eskatu beharreko enpresa-ahalmena (APKLTBren 15. artikuluari eta hurrengoari jarraiki), esleitze-modua, lan-programa xehatua eta abar.

Hori guztia egiaztatzen dute 1. dokumentua izenarekin aurkeztutako pleguen kopiek; plegu horiek, kontratazio-araudian aurreikusitakoari jarraiki, kontratuaren oinarritzko dokumentua dira.

Bestalde, azpimarratu beharra dago deialdia probintziako bi egunkaritan argitaratu zela, 2. eta 3. dokumentuak izenpean aurkezturiko egunkari-zatiek egiaztatzen duten moduan; beraz, ez zen urratu lizitazio-prozeduretan bete beharreko publizitate-printzipioa.

Izan ere, jaso ziren bederatzi eskaintzek ezin hobeto frogatzen dute printzipio hori bete zela, 4. dokumentuan egiaztatzen den bezala.

Hori horrela izanik, agerikoa da Fiskalizazio Txostenean adierazten den lege-urraketa ez zela gertatu. Egiaztatu den bezala, publizitate egokia egin zen, eta lizitazioan parte hartzeko aukera eman zen.

Hori horrela, harrigarria da Txostenaren edukia, erratuta baitago, eta adierazi den legez, gauzak ez baitziren horrela gertatu; aitzitik, kontratazioaren arloan indarrean dagoen legedia zehatz-mehatz bete zen.

Laburbilduz, eta azaldutako argudioei jarraiki, alegazioa onartu behar da, Txostenaren edukia indargabetzen baitu.





*2. Kontratua egikaritzean, 811.000 euroko zenbateko-aldaketak gertatu dira. Horietatik hirutan —539.000 euroko zenbatekoa osatzen dute—, ez dago jasota fundazioak onartu dituenik, kontratuan aurreikusitako prezio kontrajarrien hiru eskaintza aztertu ondoren.*

Gai horri dagokionez, esan beharra dago Txostenak aipatzen duen 811.000 euroko kopurua okerra dela.

Zenbateko hori eraikitzaileak proposatutako prezio kontrajarriei dagokie; AZTI Fundazioak onartutako zenbatekoa txikiagoa izan zen, ordea.

Bestalde, azpimarratu beharra dago Azti Fundazioak —zegokion lizitazio-prozedura bete ondoren— LABEIN kontratatu zuela eraikuntzaren kalitatea, lanetan erabiltzen zen materiala eta abar egiaztatzeko.

Hala, LABEINek eraikitzailearen prezio kontrajarri bakoitza aztertzen zuen, eta hark adierazitako zenbatekoetan oinarrituta, eraikitzailearekin adostasunera iritsi ondoren, prezio bat finkatzen zen. Gauzak horrela, errespetu osoz adierazten dut txostena oker dagoela hiru prezio kontrajarri aztertzen zirela esaten duenean. Esan bezala, hori ez da horrela.

Prezio kontrajarrien zenbateko osoa enpresa kontratatzailearekin adostasunera iritsi ondoren finkatu zen.

*3. Hasieran zehaztutako 15 hilabeteko egikaritze-fasea, 24 hilabetera luzatu da; alegia, % 60 luzatu da.*

Lehenik eta behin, eta pleguetan aurreikusten denari jarraiki, karatularen 2. puntuan eta horren barruko 10. atalean zehazten da lanen hasierako egikaritze-epea 16 hilabetekoa zela, eta ez Fiskalizazio Txostenak aipatutako 15 hilabetekoa.

Bigarrenik, esan beharra dago, obren atzerapena kontratistari soilik egotzi beharreko arrazoiengatik izan zela, eta beraz, Azti Fundazioa ez dela inolaz ere atzerapenaren erantzule.

*4. Zuzenean esleitutako bidaiia-zerbitzuen kontratazioak —urteko 326 mila euroko gastua dauka— urratu egiten du APKLTBk enpresen ahalmen, publizitate, lizitazio-prozedura eta esleitze-moduei buruz agindutakoa.*

Ez dakigu nola iritsi ziren “behar adina publizitate ez zela egin ” ondorioztatzerara. Ez dira arrazoitzen ondorio horretara iristeko inguruabar edo arrazonamendu juridikoak.

Hori dela eta, ateratako ondorioa baliogabetuta geratzen da; izan ere, ondorio horretara garamatzaten arrazoiak zehaztu ez direnez, azaldutako argudioei aurka egitea eragozten da, eta, beraz, alderdi hau babesgabetasun-egoeran uzten da.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Azaldutakoaz gain, beharrezkoa da aipatzea 2003an AZTI Fundazioa Tecnalía Corporación Tecnológica-ren barruan sartu zela, eta 2006an hari atxikita jarraitzen zuela. Eta, hain zuzen ere, korporazio horri zegokion, besteak beste, korporazioko kideen (eta beraz, AZTIren) bidaia-zerbitzuen lizitazioa egitea.

Beraz, eta korporazio osoko bidaia-zerbitzuak kontratatzeaz Tecnalía arduratzen zen arren, zerbitzu horiek kontratatzeko kontratazio-araudiak aurreikusten dituen izapidetze guztiak zehatz-mehatz bete zituen honek, eta lizitazio-prozeduraren ondoren CARLSON WAGONLIT TRAVEL izan zen esleipenduna.

Honela, bada, Fiskalizazio Txostenean aipatzen den lege-haustea —nahiz eta, azaldu den moduan, egiatan hala ez den— Corporación Tecnaliari egotzi beharko litzaioke, hura arduratzen baitzen AZTI Fundazioaren bidaia-zerbitzuak kudeatzeaz, eta ez AZTI Fundazioari.

*5. Tecnalía Fundazioarekin sinatutako hitzarmen bati jarraiki, 235.000 euro ordaindu dira merkataritza-politiken arrazionalizazio-zerbitzuengatik, ezarritako urteko kuotaren eta barne hartutako kontzeptuen justifikaziorik egin gabe.*

Ezarritako urteko kuotaren eta barne hartutako kontzeptuen justifikazioa Corporación Tecnaliarekin sinatutako hitzarmenean zehazten da, eta haren kopia 5. dokumentu erantsi gisa aurkeztu da.

Laburbilduz, alegazioa onartu, eta txostenaren edukia aldatu behar da, han egiaztatu gabetzat jotzen diren alderdiak aurkeztutako dokumentuaren bidez justifikatzen baitira.

*6. Teize S.L. bazkide fundatzaileari 203.000 euro ordaindu zaizkio produktu eta zerbitzuen merkaturatze moduan, 2001eko azaroaren 23an sinatutako hitzarmena betez; baina ez da egin hiru hilean behin fakturazioarekin justifikatu beharreko kontzeptuen xehakapenik.*

*Bestalde, 170.000 eta 183.000 euro ordaindu dira bi proiektutako aholkularitzagatik, kontratuaren xedearen justifikaziorik egin gabe (ikus 2. artikulua).*

Aurreko puntuan bezala, 6. dokumentu erantsi gisa eranstean da Teize S.L.rekin sinatutako Lankidetzakontratua, txostenaren arabera justifikaziorik ez duten alderdiak egiaztatzen dituenak.

Bada, ikus daitekeen modura, kontratuan justifikazio guztiak zehatzen dira: kontzeptuak, kontratuaren xedea eta abar. Beraz, dokumentu horren bidez, zuzendutzat hartu behar da Fiskalizazio Txostenean aipatzen den justifikaziorik eza, eta beraz, aldatu egin behar da Fiskalizazio Txostena.



7. 1.149.000 eurori dagozkien zerbitzu, laguntza tekniko eta hornikuntzako 16 espedientetan, ez da egin ez publizitaterik, ez lehiaketarik. Bestalde, JUVENA 06 ontziaren alokairu-zerbitzuan (106 mila eurokoa), ez da publizitaterik egin; beste bi zerbitzutan eta hornikuntza batean (26.000, 14.000 eta 31.000 eurokoak, hurrenez hurren), ez da lehiaketarik egin (ikus 2. artikulua).

Lehenengo atalean egindako hausnarketetara jo behar dugu berriro, 2006an AZTI Fundazioari kontratazio-arloan zegokion araubide juridikoa zein zen zehazteko. Izan ere, lehen aipatu bezala, 2006an AZTI Fundazioa legeri autonomikoaren pean zegoen, eta ez estatuko legeriaren pean; beraz, haren araubide juridikoa (izaera eta osaera barne) erkidegoko legediak zehazten zuen, eta ez estatukoak. Hori dela eta, 2007ra arte Azti ezin zen Sektore Publikoko Fundaziotzat jo, eta, horrenbestez, ezin zitzaizkion APKLTBren aginduak aplikatu.

Hala eta guztiz, eta Fiskalizazio Txostenean aipatzen dena aipatzen delarik ere, beharrezkoa da adieraztea AZTI Fundazioaren kontratu-jarduera lehiakortasun- eta publizitate-printzipioei jarraitu zitzaiela; hori dela eta, ezin dugu ulertu Txostena oinarririk gabeko ondorio horretara iristea.

Era berean, antxo gazteei buruzko JUVENA kanpaina zientifikorako itsasontziaren alokairu-zerbitzuaren kontratazio-prozeduran kontratazio-araudia bermatzea helburu duten printzipioak bete ziren.

Horren frogara gisa Euskal Autonomia Erkidegoko kofradiei egindako lizitazio-iragarkiaren kopia bat aurkeztu dugu; izan ere, lurralde-eremu horretan aurki baitaitezke modu honetako kanpaina zientifikorako behar diren arrantza-ontziak. Bestalde, eskaintzaileek aurkeztutako proposamenen Balorazio Txostena eta Esleipenaren Ebazpena ere aurkeztu ditugu 7. dokumentu erantsian.

Gauzak horrela, ukaezina da onartu egin behar direla bai alegazioa bai eta publizitate- eta lehiakortasun-printzipioak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa, eta, horrenbestez, txostenaren edukia aldatu egin behar dela.

## B) II. 2. LANGILEEN KONTRATAZIOA

8. *Aztertutako langile finioen alta bakarrean eta aldi baterako 5 langileen altetatik 2tan ez zen nahikoa publizitate egin.*

*Aldi baterako 43 lan-kontratu mugagabe bihurtzeko prozesuan —ekainaren 9ko hazkundera eta enplegua hobetzeko 5/2006 Errege Lege Dekretuak aurreikusitako hobari eta salbuespenez gozatu ahal izan dezaten— ez dira errespetatu aplikatu beharreko berdintasun-, meritu- eta ahalmen-printzipioak. Bestalde, prozedura horretan antzinatasun-printzipioa betetzen ez duten bi pertsona sartu dira, eta printzipio hori betetzen duten 9 baztertu, inolako azalpenik eman gabe.*



Lehenik eta behin, Fiskalizazio Txostenean alegatzen da kontratu mugagabea duen langile baten eta aldi baterako kontratua duten bi langileren kontratazioan ez zela behar adina publizitaterik egin.

Bada, aurrerago oinarrizko beste zenbait gai aipatuko ditugun arren, ondorio hori justifikatzeko atzematen den motibaziorik ezak sortzen dion babesgabetasun-egoera alegatzen du alderdi honek, lehenik eta behin.

Hala, Txostenak dio "ez zela behar adina publizitate egin", baina ez ditu inolaz ere arrazoitzen ondorio horretara eraman duten inguruabar edo arrazonamendu juridikoak.

Hori dela eta, ateratako ondorioa baliogabetuta geratzen da; izan ere, ondorio horretara garamatzaten arrazoiak zehaztu ez direnez, azaldutako argudioei aurka egitea eragozten da, eta, beraz, alderdi hau babesgabetasun-egoeran uzten da.

Gaiaren funtsari dagokionez, lege-urraketa hori ezin zaio Fundazio honi egotzi, aplikatu beharreko araudi legalak eta arruntak eskatutako publizitate-eskakizun guztiak zehatz-mehatz bete baititu.

Bigarrenik, Txostenak dio aldi baterako 43 lan-kontratu mugagabe bihurtzeko prozesuan -5/2006 Errege Lege Dekretuak aurreikusitako hobari eta salbuespenez gozatu ahal izan dezaten- ez direla errespetatu aplikatu beharreko berdintasun-, meritu- eta ahalmen-printzipioak, eta ez dela errespetatu aplikatu beharreko antzintasun-eskakizuna.

Bada, hemen ere ondorioen motibaziorik ezak dakarren babesgabetasun-egoera alegatu behar da eta, horrez gain, alderdi honek adierazten du aipatutako aldaketak indarrean zegoen legedia betez egin zirela.

Izan ere, Langileen Estatutuaren 15.5. artikulua arabera, 30 hilabeteko epean enpresa berak 24 hilabete baino epe luzeagoan kontratatutako langileak -aldi baterako kontratu bakarraren edo hainbat kontraturen bidez-, langile finko egin behar dira.

Bada, Txostenak aipatutako langile guztiek Langileen Estatutuaren 15.5. artikulua aurreikusitako egoera betetzen zuten, lege hori zorrotz aplikatuz, langile horiei zegokien egoera juridikoa aitortzea erabaki zuen AZTI Fundazioak.

Hori horrela egin ez balitz, Fundazioak eskulan gehiegi izango luke, eta, horrez gain, langile horiek egoera zentzugabea geratuko lirake. Izan ere, langile finko bihurtzeko, agian gaindituko ez zuten meritu-prozesu bat igaro beharko zuket, berez, eta legearen arabera, kontratu mugagabeko langilearen kategoria zegokien arren.

Azaldutako guztia erengatik, alegazioak onartu, eta txostena aldatu egin behar da.

## **B. "BARNE-KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZESUEI BURUZKO GOGOETAK" IZENBURUKO EPIGRAFEARI JARRITAKO ALEGAZIOAK.**

### **C) III. 2 ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK ESKURATZEA.**

*9. Ez da aurkeztu Protektoratuak igorri beharreko eta 12/1994 Legearen 27. artikulua aurreikusitako urteko memoriarik.*



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Protektoratuari bidalitako 2007ko aurrekontuen aurkezpenean kudeaketa-balantzearen informazioa edo urteko memoria jaso zen. 8. dokumentu erantsian haren kopia aurkeztu da.

## **EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRA FUNDAZIOAK AURKEZTU DITUEN ALEGAZIOAK**

### **TXOSTENAREN ONDORIOETARAKO ALEGAZIOAK:**

#### **- TXOSTENAREN II.1.5 IDAZPURUA.**

Idazpuru horretan biltzen da fundazioaren jarduera, publizitatea eta bekak kudeatzeko kontratua, 2006an 124 mila eurokoa zena, zuzenean esleitu zela, publikotasunik edo lehiarik gabe.

2004ko urtarrilaren 8an Fundazioak eta Atelier de Cultura y Comunicación S.L. enpresak sinatutako kontratuaren bederatzigarren klausulan biltzen zuen 2006ko abenduaren 31ra arte egongo zela indarrean.

Epaitegiaren txostenaren aipatutako idazpuruak, horrez gain, ezartzen du Fundazioaren kudeaketaz arduratzen den sozietate berari esleitu zaiola, publikotasun edo lehiarik gabe, orkestraren X. urteurreneko ekitaldien antolaketa, 34 mila euroren truke.

Fundazioa, orkestratik pasa diren 600 musikariak, 10 urte horietan parte hartu duten irakasleak, zuzendariak eta proiektuan kolaboratu duten artista gonbidatuak ezagutzeko beharrak gomendatzen zuen testigantzako eta azterketako lan hori ezagutza hori zeukan enpresakengatik egitea.

Azkenik, idazpuru horretan esaten denaren arabera, Orkestraren garraio zerbitzua, 21 mila euroren truke, zuzenean esleitu zen, lehiarik gabe.

Kontratu hori lehiarik gabe esleitu zen, garraiatzen diren musika-tresnak ez direlako Fundazioaren jabetzakoak, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarenak baizik, eta sozietate horrek, esperientzia txarrak izan ondoren, eskatzen duelako tresnak orkestran lan egin duten eta materialak egoki erabiliko dituzten garraiolariak garraiatzea, premisa hori ez betetzeak orkestra topaketetarako bere tresnak ez izatea eragingo lukeelako eta ezin izango lukeelako bere jarduera burutu. Aintzat hartu behar da Orkestraren tresnak eta materialak oso material kaltebera, hauskorra eta sentikorrek dira eta, batez ere, bere garraioa baldintza zehatz batzuetan egin behar da.

Azkenik, idazpuru horri dagokionez, adierazten da, 2010eko azaroaren 15ean, Fundazioaren Patronatuak Fundazioaren kontratazioko Barne Jarraibideak onartu dituela, urriaren 30eko 30/2007 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuenaren, 175 b) artikuluari jarraiki, Fundazioaren kontratazio-prozedurak arautzeko.

#### **- TXOSTENAREN III.5.3 IDAZPURUA.**

Idazpuru horretan adierazten da ez dagoela fundazioaren patronatuaren erabakien aktarik, sortu zenetik 2006ra arte, eta 2006tik aurrerakoak –urteko bat- Fundazioen Erregistroan



2009an legeztatu zirela. Fundazioen Erregistroan 1997ko eratze-idazpena soilik ageri da eta erregistratzeke daude patroien aldaketei eta ahalordeei eragiten dieten patronatuaren erabaki guztiak.

Horren inguruan, esan behar den gauza bakarra da Fundazioak egoera normalizatu duela, EAEko Fundazioen Erregistroan inskribatuta daudela patroien aldaketei eta ahalordeei eragiten dieten erabaki guztiak.

Bestalde, idazpuru berean biltzen da Sozietate Kudeatzailea arduratzen dela, praktikan, fundazioaren jardueraren ohiko kudeaketetz, eta ez dagoela ahalmenak eskuordetzeko aukerarik, eta izatekotan, patronatuko kideren bati eskuordetu ahal izango litzaizkiokela, aurrekontua eta urteko kontuak onartzeko, horiek onartzea fundazioaren patronatuari baitagokio.

Horri dagokionez, adierazi behar da, patronatuaren 2010eko irailaren 8ko erabakiaren bidez Vitoria-Gasteizko (\*\*\*\*) notario jaunaren aurrean 2010eko urriaren 29an emandako eskritura publikoan jaso-, ahalmena eman zaiola Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sustatzeko zuzendariari, (\*\*\*\*) jaunari, besteak beste, fundazioaren helburuak betetzeko beharrezko kontratuak egitekoa.

## KALITATEA FUNDAZIOAK AURKEZTU DITUEN ALEGAZIOAK

### II.1 ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK ESKURATZEA

Prentsan, irratian eta telebistan publizitatea kudeatzeko zerbitzua 520.000 euroko kopuruz kontratatzeari dagokionez, hedabideetan espezializatuta dagoen enpresak hedabide desberdinetara bideratzen ditu inbertsioak, eta errentagarritasunaren eta publizitate-eraginkortasunaren azterketa oinarritzat hartuta aurkezten du bere gomendioen justifikazioa. Zerbitzu horiek direla eta, kontratatzaileak, 2006. urtean, 7.717,78 euroko diru-kopurua jaso zuen agentzia-komisioaren kontzeptupean. Diru-kopuru horren gainerakoaren banakapena hauxe da:

Markesinak eta hiri-altzariak:	132.660,35 euro
Prensa idatzia:	3.409,63 euro
DEIA	1.442,82 euro
EL CORREO	650,56 euro
GARA	1.316,25 euro
Telebista:	378.449,51 euro
Antena 3 TB (Euskadi)	58.823,01 euro
Euskal Telebista	231.491,73 euro
Telemadrid	16.746,24 euro
TVR (Euskadi)	71.388,53 euro



Zenbatekoa, guztira, 514.519,49 da, eta horri, Agentzia kontratatzaileak ordainsari gisa jasotako 7.717,78 euroak gehitu behar zaizkio.

Arrantza-kanpainaren publizitate-zerbitzuak 138.000 eurotan kontratatzeari dagokionez, berriz, adierazi beharra dago Kalitateak errotazio-sistema baten bitartez funtzionatzen duela publizitate-enpresen artean, eta horiekin guztiekin oso balioespen positiboa izan duela aurreko kontratazioetan. 2006an Ba creativos kontratatu zen kanpaina hau egiteko.

Publizitate-zerbitzuak Bell enpresari 97.000 eurotan esleitzeari dagokionez, aipatu beharra dago enpresa horrek, Gernikako Piperraren kanpaina prestatzeaz gain, horren zenbatekoa guztira 41.183,48 euro izan zirelarik, kanpaina honekin lotuta ez zeuden zenbait ekintza berezi egin zituela, hala nola prentsako orijinalak egitea, produktuen argazkiak ateratzea, esku-orriak... eta horien zenbatekoak 220 eta 10.266 euro artean dabilta (BEZik gabe).

2006. urtean Bellek bidalitako fakturen zerrenda doa honekin batera.

Fundazioaren hornitzaileetako bat da Bell, orain hamar urte baino lehenagotik, eta eskaintzen duen zerbitzu maila eta prezioa egokitzat jotzen dira. Zerbitzu hauek kontratatzea ekintza indibiduala da, eta eskaintza bat behar den guztietan, erregistrorik ez egon arren, aurrekontua eskatzen zaie gurekin lan egiten duten sektoreko enpresei.

Informatika-zerbitzuak 130.000 eurotan esleitzearen inguruan, berriz, esan beharra dago kontratatutako enpresa (IKT) dugula, Fundazioa 1998an sortu zenez geroztik, Fundazioaren marka desberdinak kudeatu dituen eta eguneroko kudeaketan erabilitako informatika-aplikazio bereziak garatu dituen. Urtero, IKT enpresak zerbitzuen eskaintza bat egiten dio aplikazio horien mantentze-lanengatik Fundazioari, eta lau hileko txosten bat aurkeztu ondoren, fakturak jasotzen dira.

IKT dugu Fundazioak erabiltzen dituen (eta Fundazioarenak diren) aplikazioak ezagutzen dituen enpresa bakarra, eta beraz, Fundazioa behartuta dago mantentze-lanak enpresa horrekin kontratatzea. 2006ko ekitaldiko eskaintza doa honekin batera.

2006. urterako zerbitzu-eskaintzaren kopia bat doa honekin batera

Inprimatze-zerbitzuak Sacal Inprimategiari 73.000 eurotan esleitzeari dagokionez, bestalde, zerbitzu horien barruan zenbait ekintza desberdin biltzen direla esan behar da, hala nola buletina, egutegiak, hiltegietarako etiketak, tomatearen hegala... inprimatzea.

Zerbitzu bakoitza gainerakoetatik bereizirik kontratatzen da; Kalitateak zenbait inprimategirekin egiten du lan eta prezioaren eta kalitatearen arabera zerbitzurik onena eskaintzen duen enpresa kontratatzea erabakitzen da.

2006. urtean Sacal Inprimategiak bidalitako fakturen zerrenda doa honekin batera.



## II.2 PERTSONALA KONTRATATZEA

Kalitatea Fundazioak, Eusko Labela duen Hegalaburra eta Hegaluzea kontrolatzeko eta ziurtatzeko lanak burutzearen, 25 pertsona kontratatu behar izaten ditu aldi baterako eta kanpaina bakoitzerako, etiketatzailerak eta koordinatzaileak gisa lanean aritu daitezkeen euskal kostaldeko portu desberdinetan. Horretarako, Fundazioaren web gunean portu bakoitzerako dauden lan-eskaintzak iragartzen dira, eta halaber, kofradia bakoitzaren iragarki-taulan eta ikusgarritasun handiko tokietan ere egiten da horien inguruko publizitatea.

Gero, curriculumak jaso eta aztertu egiten dira, Fundazioaren beste edozein hautapen-prozesutan bezalaxe: balioetsi beharreko merezimenduen irizpideak alde aurretik zehazten dira, curriculumak jaso, hautapen-elkarrizketak egiten dira, hautagaien inguruko erabakiak hartu, horiek jakinarazi eta lan-kontratuak gauzatu dira.

2006. urtean arrantzale-kofradia bakoitzaren bitartez egin zen kontratazioa: Kofradiek iragarkien taulan jakinarazten zuten halako lanpostuak bete beharra zutela Kofradiak berak egiten zuten hautapen-prozesua eta, gero, Fundazioak kontratatzen zituen pertsona horiek. Era horretan, Eusko Labela duten Hegalaburraren eta Hegaluzearen proiektuan kofradiek parte-hartze aktiboa izan zezatela lortzen genuen.

## III BARNGE-KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO OHARRAK.

### III. ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK ESKURATZEA

Fundazioko Zuzendariak 2006an artxibatutako dokumentazioa doa honekin batera, eta bertan, EITBk 2005. urtean audientzien inguruan egindako jarraipenaren datuak eskaintzen dira; izan ere, EITB da aizkolarien txapelketa ematen duena eta ikusle horiek dira jarraipen handiena egiten diotenak.

2006ko txapelketaren historia-laburpena doa honekin batera.

2006ko txapelketaren egutegia doa honekin batera.

2006ko txapelketaren prentsako laburpena doa honekin batera.

“Urrezko Aizkora” txapelketako publizitate-babesaren inguruan Hedabideen Kudeaketak egindako azterketa doa.

Datu horiekin, eta txapelketa jokatu den herriak zein diren jakinda, herri-kirol minoritario bat sustatzeaz gain, Fundazioak txapelketa babestea erabaki du, txapelketa hori Euskal Herrian oso errotuta dagoen ekitaldia delako eta gure bereizgarria sustatzeko eta baserri giroko balio tradizionalekin lotzeko baliabide bikaina delako; horrez gain, kontuan hartu behar da ekitaldi hauetara joaten diren ikusle gehienak baserri-girotik datozela eta, era horretan, Eusko Labelaren eta gure produktuen operatzaileen (baserritarrak, abeltzainak, nekazariak...) arteko hurbilpena indartzen dela.

2008an izenpetutako hitzarmenaren kopia bat doa honekin batera.





2006an Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoari buruzko Legea aurkeztu zen Eusko Legebiltzarrean, Batzordean zenbait hilabetez eztabaidatu ondoren, eta, azkenik, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoari buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Lege gisa onetsi zuten.

Aipatutako Lege horretan Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua eratu zen (4. artikulua), eta Lege horren 6. artikuluan garatzen diren zenbait eginkizun burutzea da haren ardura, betiere Euskadiko nekazaritza ekologikoaren alorrean.

Aipatutako Kontseilu hori eratu bitartean (2008. urtean eratu zen) Ekonekazaritza/Nekazaritza Ekologikoko Elkarteen Federazioak burutzen zituen eginkizun horiek, eta horretarako, beharrezkoa zen eginkizun horiek bere gain hartzeko baliatuko zen hitzarmenari eduki ekonomikoa gehitzea; hain zuzen ere, hori egiteko aurreikusitako kostuaren arabera zenbateko bat finkatu zen. Hitzarmen horretan adierazi zen moduan, azken ordainketa egin aurretik, Federazioak justifikatu egin behar zituen kobrantza guztiak zegozkion fakturak aurkeztuz, eta justifikazio horren bidez froga dezakegu, hain zuzen ere, aurrekontuetan finkatutako zenbateko ekonomikoaren zentzuzkotasuna.

Horrez gain, kontuan hartzen badugu Kalitatea Fundazioaren helburuen artean, nekazaritza-elikagaien kalitatea bultzatzea, sustatzea eta garatzea zegoela produktu horiek balioetsiak, bereziak eta merkatuan estimatuak izateko balio duten mekanismoak baliatuz, betiere horren bitartez berezitasun lehiakor bat erdiesteari begira, erabaki zuten, kalitateko produktu berezi bat sustatzeko xede horretan, erakunde hori zela helburuak egokien betetzen zituena, hots, Ekonekazaritza/Nekazaritza Ekologikoko Elkarteen Federazioak Euskadin ordezkatzeko zuten ekoizpen ekologikoa sustatzea, eta horrenbestez, alderdien artean adostu zuten Hitzarmen hori izenpetzea eta, bide batez, legeak bultzatu beharrekotzat aurreikusten zituen eginkizunak garatzea, bereziki elikagai ekologikoen kontsumoa, zabalkundea eta ekoizpenaren inguruko heziketa sustatzeari dagokionez.

Legebiltzarrak berak, 2007ko aurrekontu-ekitaldian, onetsi zuen Ekonekazaritza Nekazaritza Ekologikoko Elkarteen Federazioarentzat partida izendun bat sortzea, Kalitatea Fundazioarekin izenpetutako Hitzarmenean aipatzen diren antzeko helburuekin, eta horrenbestez, aipatutako Hitzarmen hori ez zen gehiago luzatu.

#### A.4 FINANTZA ARLOKO KONTU-IKUSKARITZAK

2006 ekitaldiko kontu-ikuskatzaileek egindako salbuespenaren jatorria, hain zuzen ere, 2007ko urtarrilaren 30ean BIZKAIKO FORU ALDUNDI TXIT GORENEKO BEZ BULEGOKO BURU jn.ari aurkeztu zitzaion idazkia da, eta bertan, 06/10/2005 data duen epaian oinarrituta, Europako Komunitateetako Justizia Auzitegiak zioen BEZaren Espainiako araudiak ez zituela betetzen Batasuneko Zuzenbidearen arabera zegozkion obligazioak, zergapetutako eragiketak bakarrik burutzen dituzten subjektu pasiboek jasaten duten balio erantsiaren gaineko zergaren kenkari-prorrata bat aurreikusten duelako eta arau berezi bat finkatzen duelako, diru-laguntzen bitartez finantzatutako ondasun eta zerbitzuen erosketari dagokion BEZaren kenkari-eskubidea mugatzen duena.



Gauzak horrela, KALITATEA FUNDAZIOAK 2002, 2003, 2004, 2005 eta 2006 ekitaldietako balio erantsiaren gaineko zergen ordezkotzat aitorpen bat aurkeztu zuen, aipatutako arau hori aplikatu gabe.

Diru-laguntzetan prorrata hori ez aplikatzeak 2,3 milioi euroko zenbatekoa sortzen zuen, Bizkaiko Foru Aldundiak jasoko zuena. Ikuskaritza-txostena egin zen egunean, oraindik ez zen horri zegokion itzulketarik egin, ezta Europako epaiaren arabera zegokion baldintzarik onartu ere, eta are gehiago, horrek Kalitatea Fundazioaren baitan edukiko lukeen ondorioari buruzko interpretazio-desadostasunak ere bazeuden. Arrazoi horregatik zegozkion kopuruetatik lehena 2007/07/26an kobratu zen, eta horrek, zuzkidura hori ezabatzea ekarri zuen, zegokion ikuskapen-agiria egin ondoren.

## **BILBOKO ARTE EDERREN FUNDAZIOAK AURKEZTU DITUEN ALEGAZIOAK**

Erreferentziako txostenean egin zenituen gogoetei eta II.1.8 puntuan jasotako zerbitzuen esleipen moduari dagokienez, beharrezkotzat jotzen dugu honakoa esatea:

Museoaren kontratazio-partida nagusiei dagokienez, beti eskatu izan ditugu, gutxienez, hiru aurrekontu baloratzeko, eta esleipena beti egin izan dugu eskaintza ekonomikorik onenaren alde, baldin eta eskaintza horrek eskatutako baldintzak betetzen bazituen.

Zehazkiago esanda, eta balorazio ekonomikoari dagokionez eraginik handiena duten partidei erreferentzia eginez, honakoa adierazten dizuegu:

- Zainketa zerbitzua: zerbitzu hau betetzeko, lau segurtasun-konpainiari eskatu zitzaizkien eskaintza; hain zuzen ere, SECURITAS, PROSEGUR, PUNTO 5 eta ALSeri. Horietatik hiru, sektoreko erreferentziatzat hartzen dira. Eskatutako eskaintzen barruan zerbitzu finkoa zegoen, eta horren eskaintza ekonomikorik onena 269.470,24 eurokoa izan zen; era berean, 15.000 orduko zerbitzu aldakorra ere bazegoen sartuta, eta horren eskaintzarik onena 220.000 eurokoa izan zen. Beraz, esleitutako eskaintzaren aurreikusitako zenbatekoa 489.470,24 eurokoa izan zen, eta ez 313.000 eurokoa, zure dokumentuan jasota dagoen bezala. Eskaintzen balorazioa benetako zerbitzuaren prestazioari buruzko irizpideen arabera egin zen. Hain zuzen ere, eskaintza ekonomikorik onena behar bezala zegoen beteta, eta, beraz, zerbitzua esleitu zen eta kontratazioari ekin zitzaion.

Tarifa: Securitas: 277.707,36 euro + 15.000 ordu

Prosegur: 283.000,00 euro + 15.000 ordu

Punto 5: orduko prezioa baino ez da adierazten

Alse: 269.470,24 euro + 15.000 ordu

Azkenean, ALSeri esleitu zitzaion.

- Aretoko laguntzaileak: 2006ko urrian, eskaintzak eskatu zitzaizkien sektoreko lau enpresari; hain zuzen ere, MANPOWER, PUNTO 5, VEXTER eta RANSTADi. Eskaintzak baloratu ostean, esleipena egokientzat hartu genuen enpresari egitea proposatu zen;



alegia, eskaintza ekonomikorik onenari. (Eskaintza gutxieneko zerbitzuaren estimazioaren arabera egiten da)

Tarifa: MANPOWER: 186.921,00 euro

PUNTO 5: 218.452,59 euro

VEXTER: 239.000,00 euro

RANSTAD: 256.063,68 euro

Azkenean, MANPOWERri esleitu zitzaion.

- Garbiketa zerbitzua: 2006an, eskaintza eskatu zitzaizen sektoreko hiru enpresari (GARBIALDI, ELYMA eta UNI2), eta zerbitzua eskaintzarik onenari esleitu zitzaion, eskatutako baldintzak betetzen zituen eta. Beste alde batetik, ekitaldi honetan betearazitako zenbatekoa 176.216,96 eurokoa izan zen, eta ez 180.000 eurokoa, zure dokumentuan adierazten den bezala.

Tarifa: GARBIALDI: 154.936,88 euro

ELYMA: 155.613,00 euro

UNI2: 178.632,00 euro

Azkenean, GARBIALDiri esleitu zitzaion.

Zure gainerako gogoetei dagokienez, gauza gutxi batzuk laburbildu behar ditugu: aseguruaren eta garraioen atalean (hasieran esan dugun bezala, arau orokor gisa, beti eskatzen ditugu hiru aurrekontu), batzuetan, lanok egiten dituztenek maileguari dagozkion baldintzak eskatzen dituzte (aseguru, garraioa, erakusketa eta abar).

Era berean, adibide gisa esan beharra dago liburuxkak partidako gastua (67.000 euro) zenbait atalez dagoela osatuta, eta liburuxkarik ohiko eta garrantzitsuenetako bakoitzak (hileroko egitaraua, zinemateka eta erakusketak) ez duela gainditzen 6.000 euroko urteroko zenbatekoa. 2006ko ekitaldian, zinematekako liburuxkek 4.509,30 euroko zenbatekoa izan zuten, Museoko liburuxka orokorrak (VEGAPeko ordainketak barne) 5.117,96 eurokoa, eta hiruhilekoko egitarauari buruzko liburuxkek, berriz, 6.460,89 eurokoa.

Langileen kontratazioa eta aukeraketa (III.3.2 puntua) atalari dagokionez, jakinarazten dizugu hautaketa-enpresaren xedea dela eskatutako postuaren ezaugarrietara ondo egokituko diren hautagaitza egokiak ematea bezeroari, trebetasunak eta eskumenak ebaluatuz eta berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioak une oro aztertuz.

Aholkulari psikologikoen aukeran finkatzen dituzte hautaketarako prozedurak eta metodoak, eta, kasu bakoitzean, metodorik egokiena aukeratzen dute, kontuan izanik postuaren ezaugarriak, hautagaitza kopurua eta ebaluatu beharreko gaitasunak eta jarrerak.

Normalean, hautaketa prozesuetako emaitzak elkarrizketetan eta pertsona bakoitzari egindako proba psikoteknikoetan oinarritzen dira, eta, modu horretan, hautagaitza bakoitza



egokia ote den baloratu daiteke, postuari kasu bakoitzean eskatzen zaizkion ezaugarriak eta baldintzak modu pertsonal eta profesionalean betetzen ote dituen jakiteko.

Hautaketa prozesu bakoitzean aurrez aukeratutako eta albo batera utzitako hautagaitzen kopurua aukerazkoa da, eta hautaketa enpresako aholkulari psikologikoak arduratzen dira horretaz. Era berean, kopuru hori aldatu egiten da, postuaren, jasotako hautagaitza kopuruaren, hautagaitzen kalitatearen eta aholkularien irizpide profesionalaren arabera.

Hautaketa prozesua amaitzen denean, aukeratutako hautagaitzak jasotzen dituen isilpeko agiri bat ematen zaio enpresa bezeroari.

Azkenik, esan behar dizugu une honetan Museoaren kontratazio guztiak egiteko protokolo bat eta beharrezkoak diren agiriak lantzen ari garela, eta espero dugu egin beharreko hurrengo prozesuetarako prest izango dela.

## **MAKINA-ERRAMINTAREN PRESTAKUNTZA TEKNIKORAKO FUNDAZIOAK AURKEZTU DITUEN ALEGAZIOAK**

### **AURRETIKOA.- BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA AURREKO ARDURADUNEI BIDALTZEARI BURUZKOA**

Kontuen Auzitegiko Funtzionamenduaren apirilaren 5eko 7/1988 Legearen 44.1 artikuluan, aurreko arduradunei behin-behineko txostena jaso eta 5 egun baliodunen barruan bidaltzeko betebeharra ezartzen da, egoki ikusten badute, arrazoibideak aurkez ditzaten; era berean, Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidalketa horren hartzaile diren pertsonen eta bidalketa-daten zerrenda igortzeko betebeharra ezartzen da. Horri dagokionez, Epaitegi horri jakinarazten zaio zerrenda hori 2010eko urriaren 28an egiaztatu zela, aurrez, Epaitegi horretan 2010eko azaroaren 2an aurkeztutako idatziaren bidez jakinarazita bezala.

### **LEHENA.- "LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA". "ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK HARTZEA". "MAKINA-TRESNAREN PRESTAKUNTZA TEKNIKORAKO FUNDAZIOA" IZENEN 11.1.10 EPIGRAFEAREN AURKAKO ARRAZOIBIDEA**

- *Behin-behineko Txostenaren barneko aipaturiko epigrafearen lehen lerroaldean hala irakur daiteke: "Espediente hauek zuzenean esleitu ziren publizitate eta konkurrentziarik gabe: Tedes proiektuan kolaboratzea, 109 mila euro; garbiketa-zerbitzuak garatzea, 66 mila euro; informatika-softwarea garatzea, 50 mila euro; ingeles-ikastaroak ematea, 44 mila euro; prentsan iragarkiak jartzea, 42 mila euro; euskara txertatzea, 41 mila euro; eta erretopografia, 32 mila euro".*
- Behin behineko Txostenaren barneko aipatu epigrafearen hurrengo lerroaldean hala irakur daiteke: "Espediente hauek konkurrentziarik gabe esleitu dira: Robotiker Fundazioarekin kolaboratzea, 28 mila euro; jatetxe-zerbitzua garatzea, 25 mila



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

*euro; publizitate-kanpainak diseinatu eta erreprografia egitea, 24 mila euro; informatika-arloko mantenu-lana, 22 mila euro; ekoizpen-diseinuaren ikastaroa, 22 mila euro; triptikoak inprimatzea, 19 mila euro; informatika-ikastaroak ematea, 17 mila euro; itzulpenak egitea, 15 mila euro; eta Malasian proiektu batean laguntzea, 14 mila euro”.*

Hasteko, komeni da azpimarratzea ondasunak eta zerbitzuak hartzeari buruz txostenean aipatzen den epean (2006an) aplikagarria den araudia. Hau da, Herri-administrazioen Kontratuen Legeko Testu Bategina onartzeko ekainaren 16ko Legegintzako 2/2000 Errege Dekretuan, aipaturiko esparruari dagokionez epe horretan indarrean zena:

- 1. artikulua, 3. atala, b) lerroaldea: *“3. Lege honetara egokitu beharko dute kontratuzko jarduera edozein organismo autonomok eta berezko izaera juridikoa duten gainerako zuzenbide publikoko entitatek, edozein Herri-administrazioekin lotutakoak edo haien mendekoak izanik, betiere, baldintza hauek betetzen badituzte:*
  - a) *Industria-izaerarik edo merkataritza-enpresako izaerarik gabe, interes orokorreko premiak asetzeko espezifikoki sortuak izatea.*
  - b) *Gehienbat Herri-administrazioen edo bestelako zuzenbide publikoko entitateen eskutik finantzaturako jarduerak gauzatzen dituzten entitateak izatea edo, bestela, jardunaren kudeaketa aipaturiko horien kontrolpean duten entitateak izatea, edo administrazio-, zuzendaritza- edo zaintze-organoetako kideen erdia baino gehiago Herri-administrazioak edo bestelako zuzenbide publikoko entitateek izendatua izatea”.*
- 2. artikulua, 1. atala: *“Aurreko artikuluan aipatutako esparruan sartzen ez diren zuzenbide publikoko entitateek, Herri-administrazioen Ondasunen azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 166. artikuluan, 1. atalean, c) eta d) lerroaldeetan aipatzen diren merkataritza-sozietateek eta gainerako Herri-administrazioen baitakoak diren bestelako merkataritza-sozietateek (industria- eta merkataritza-izaerarik gabe, interes orokorreko premiak asetzeko espezifikoki sortutakoak) eta sektore publikoko fundazioek, betiere, aurreko artikuluko 3. atalean, b) lerroaldean barneratzen diren baldintzetako bat betetzen dituztenek, enpresen gaitasunari, publizitateari, lizitazio-prozedurari eta esleipen-moduei buruz lege honetan ezarritakoaren arabera jardungo dute jarraian aipatzen diren ondorioetarako: Balio Erantsiaren Zerga kontuan hartu gabe, gutxienez 5.278.227 eurotan zenbatutako obrak, hornidurak, aholkularitza eta asistentzia nahiz zerbitzuak kontratatuzko, Igorpen Eskubide Bereziak (IEB) aintzat hartuz 5.000.000 euroren baliokide izanik obrak kontratatzeari badagozkio; edo, gutxienez, 211.129 eurotan zenbatutakoak kontratatuzko, Igorpen Eskubide Bereziak (IEB) aintzat hartuz 200.000 euroren baliokide izanik kontratuan aipatzen diren bestelakoak kontratatzeari badagozkio”.*
- Seigarren Xedapen Gehigarria: *“Jarraian aipatzen direnek publizitate- eta konkurrentzia-printzipioak beteko dituzte kontratuzko jardueran, baldin eta egin*



*beharreko eragiketa printzipio horiekin bateraezina ez bada: Merkataritza-sozietateak, 2. artikuluko 1. atalean barneratzen ez diren kontratuetarako bertan aipatzen diren sektore publikoko fundazioak, eta kapital gehiena zuzenean edo zeharka Herri-administrazioaren edo bertako organismo autonomoen edo zuzenbide publikoko entitateen partaidetzaren baitan duten merkataritza-sozietateak”.*

Argi dago, fundazioei dagokienez, arau horietan Herri-administrazioako Kontratuen Legeko Testu Bateginaren (HAKLTB) aplikazio-eremuan “sektore publikoko fundazioak” barneratzen direla espresuki.

Horrenbestez, fundazioak HAKLTBko arauen baitan jartzeko lehen premisa “sektore publikoko fundazioa” izatea da. Jarraian, eta gehigarri modura, HAKLTBko 1. artikuluan, 3. atalean, b) lerroaldean eskatzen diren baldintzak beteko dira.

Hala ere, HAKLTBn erabiltzen den terminologia gorabehera, ez da adierazten zer den “sektore publikoko fundazio” modura ulertzen dena.

Definitu gabeko arau-barruti horri dagokionez, interesgarria da zehaztea IMH berezko izaera juridikoa duen fundazio pribatua dela; izan ere, nahiz eta fundatzaileen artean hiru Herri-administrazio izan, gainerako fundatzaileak (gehienak) makina-tresna sektoreko esparru pribatukoak dira, hots, enpresa pribatuak dira.

Zehatzago esatera, IMH, funtsean, Gipuzkoako enpresa-ehundurako enpresari-multzo baten irrikaren ondorioa da, aipaturiko makina-tresna sektorearen prestakuntza eta garapena sustatzeko asmoa zuten enpresariena, hain zuzen.

Hori dela eta, IMHk adierazi izan du ez dela kokatzen “sektore publikoko fundazio” izenekoan barnean eta, horrenbestez, ez zegoela HAKLTBko arauen baitan.

Are gehiago, IMH sektore publikoko fundaziotzat hartuta ere, ez ditu bete behar 1.3. b) artikuluan ezartzen diren gainerako baldintzak, izan ere:

- (i) Bere kudeaketa ez dago Herri-administrazioen edo bestelako zuzenbide publikoko entitate baten kontrolpean.
- (ii) Bertako kideen erdia baino gehiago ez dira nagusiki Herri-administrazioak edo bestelako zuzenbide publikoko entitateek izendatuak.

Berez, IMH ez da Herri-administrazio baten tresna, ezta zuzenbide publikoko entitate batena ere.

Edozein kasutan, gaineratu behar da publizitate- eta konkurrentzia-printzipioak zorrotasun osoz betetzen direnik ikusi ez bada ere, neurri batean konkurrentzia eta, horrenbestez, publizitatea sustatzeko ahalegina egin dela IMHk egindako kontratazioetan.



Bigarrena.- “Legea betetzeari buruzko iritzia”. “Langileak kontratatzea”. “Makina-tresnaren Prestakuntza Teknikorako Fundazioa” izeneko II.2.7 epigrafearen aurkako arrazoibidea

- Epigrafe horri dagokionez, behin-behineko txostena horrela abiatzen da: *“langile finko baten kontratazioa publikitate-printzipioa bete gabe gauzatu da”*.

Aurreko arrazoibidean adierazitako argudioa azpimarratu behar da, hots, IMH ez dela “sektore publikoko fundazio” izenekoan barneratzen, eta langileak kontratatzerakoan fundazio horientzat langileak kontratatzeari dagokionez aplikatzen diren legezko arauak ez dira zorrotzasunez bete; dena den, aipatu behar da, oro har, prozesua hedatzeko ahalegina egin dela lanpostuaren eta profilararen arabera langile egokiak kontratatzeko xedez.

- Hurrengo (azken) lerroaldean hau aipatzen da: *“Fundazioko bi zuzendari Administrazio Orokorreko Hezkuntza Saileko irakasle ez unibertsitarioak dira eta 26 eta 22 mila euroko osagarriak jaso dituzte, hurrenez hurren, sail horretarako egindako lanaren truke; horren harira, ez dago egiteko funtzioak eta gauzatutako ordainketa onartzen dituen dokumenturik”*.

Aurreko lerroaldean ezarritakoari dagokionez, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako ikuskaritzaren bidez irregulartzat jo da Fundazioko zuzendari gerenteak eta teknikoak hartatik urtero jasotako ordainketa, haiek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko funtzionario izatea kontuan hartu gabe.

Nolanahi ere, horri dagokionez, argitu behar da ordainketa hori Fundazioko Patronatuak erabakitakoa dela, aipatutako zuzendariek, denborari eta dedikazioari so, jasaten duten kaltea arintzeko xedez. Jakina, ordainketa hori ez dagokio berez ordainsari bati eta, ez du inolako eraginik haien lan- edo funtzionaritza-harremanarekin.

Aitzitik; ordainketa hori ez litzateke ulergarria izango Fundazioaren edo IMHren jatorria aintzat hartu gabe; izan ere, neurri handi batean (esklusiboki ez bada ere) aipaturiko langileen ahalegin pertsonalari zor zaio. Are gehiago: Fundazioko Patronatu ezberdinen arabera, desadostasuna sortu duen ordainketa hori da modu bakarra, alde batetik, dedikazio bikaina ziurtatzeko eta, beste alde batetik, Fundazioaren eta Hezkuntza Sailaren artean zuzendaritzaren bikoiztasuna gerta ez dadin, horrek ez bailuke onurarik ekarriko zentro honi so.

Hori dela eta, Fundazioko Patronatuek ordainketa horiek erregulartzat jo dituztenez, ulertzen dugu ez dagoela Herri Kontuen Euskal Epaitegiak sala dezakeen irregulartasunik.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## **HIRUGARRENA.- “BARNE-KONTROLERAKO ETA KUDEAKETA-PROZEDURETARAKO SISTEMEI BURUZKO GOGOETAK”. “LANGILEEN KONTRATAZIOA ETA HAUTAKETA”. “MAKINA-TRESNEN PRESTAKUNTZA TEKNIKORAKO FUNDAZIOA” IZENEKO III.3.4 EPIGRAFEAREN AURKAKO ARRAZOIBIDEA.**

Aipatu epigrafeko lerroalde bakarrean hala irakur daiteke: “3 langile finkoren kontratazioan, ez dago ebidentzia nahikorik meritu- eta gaitasun-printzipioak bete direla ziurtatzeko. Egindako elkarrizketen eta curriculumen dokumentazioa izan arren, ez dago balioetsitako alderdien puntuazioak eta azken sailkapena jasotzen dituen txostenik”.

Txosten honetan dagoeneko azaldutakoa adierazi behar da, hau da, IMH ez dela sekula izan “sektore publikoko fundazio” izenekoaren barnekoa eta, horrenbestez, langileak kontratatzeari dagokionez fundazio horietarako aplikagarri diren legezko arauak ez dira zorrotzasunez bete; nolana ere, aurreko arrazoibidean adierazten denak erakusten duenez, elkarrizketa nahiz curriculumei buruzko dokumentazioa jaso da eta horrek agerian uzten du, neurri batean, betetzen direla langileen kontratazioari dagokionez fundazioetarako ezartzen diren printzipioak.

## **EUSKAL HERRIKO GOI-MAILAKO MUSIKA IKASTEGIRAKO FUNDAZIO PRIBATUAK AURKEZTU DITUEN ALEGAZIOAK**

2010eko urriaren 22an MUSIKENE Goi-mailako Ikastegiaren sarrera-erregistroan, euskal sektore publikoan nagusitasuna duten fundazioen fiskalizazioaren emaitzak jaso ziren, 2006ko ekitaldiari dagozkionak, eta zehazki, eta Sailburu honen eskumenari dagokionez, Euskal Herriko Goi-mailako Musika Ikastegirako Fundazio Pribatuari dagokiona. Bertan, jasotako txostenaren edukari lotuta, hamabost eguneko epea ezartzen da, hala badagokio, ziurtagiriak bidaltzeko, edo/eta egokitzat jotzen diren agiriak aurkezteko.

Xede horretarako, eta ezarritako epearen barruan, idatzi honen bidez ondorengo Alegazioak igorri dira.

### **TXOSTENAREN ONDORIOEI ALEGAZIOAK**

#### **BAKARRA.- II. 1.11, II.2.8, III. 3.5, IV.1 ETA IV.2. EPIGRAFEI.**

Sarreran jasotzen den moduan, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak emandako fiskalizazio txostena 2006ko ekitaldiari dagokio. Ildo horretan, denborari dagokionez, unea kontuan hartuta, Alegazio bakarra egitea beharrezkotzat jotzen da, eta fiskalizazio txostena horri mugatzen zaio.

Horrela, nabarmen ezaguna denez, gaur egungo Gobernu Autonomikoa 2009ko maiatzean eratu zen; zehazki, eta helburu dugunari begira, Musikene Goi-mailako Musika Ikastegiaren arloko kudeaketa, 2005eko uztailaren 27aren ostean sortutako Musikene Fundazioaren Patronatuak onetsitako plangintza ekonomikoa eta jardueren memoria betearazteari mugatuta zegoen (Justizia eta Herri Administrazio Saileko Erregistroen eta Toki





Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Araubidearen zuzendariaren 2010eko urriaren 13ko Ebazpenean jasotzen denaren arabera), eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu (\*\*\*\*) jauna zen Patronatuko lehendakaria. Ebazpenak berak jasotzen duenez, Patronatu horri segida eman zion 2006ko maiatzaren 24aren ostean eraturako Patronatuak; horrek ere Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu (\*\*\*\*) jauna buru izan zuen.

Beraz, 2006ko ekitaldian barrena egindako kudeaketaren ardura 2005eko uztailearen 27aren ondoren eta 2006ko maiatzaren 24aren ondoren eraturako Patronatuari dagokio; bi Patronatuen lehendakaria Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu (\*\*\*\*) jauna izan zen.

Horri jarraituz, (\*\*\*\*) andrea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu izendatu zuten maiatzaren 8ko 6/2009 Dekretuaren bidez, eta Musikene sektore publikoko fundazio pribatuaren Patronatua berri zuten 2009ko urriaren 5eko bilkuran. Horrela jasotzen du Eusko Jaurlaritzako Fundazioen Erregistroak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak 2009ko irailaren 28an kideak izendatzeko Agindua eman ostean.

Patronatuaren bilkura hartan, honako hau adostu zen gai-zerrendako seigarren puntuan: “Aho batez onartzen da (\*\*\*\*) andrea Koordinatzaile Nagusi izendatzea”, eta jarraian, gai-zerrendako zazpigarren puntuan, Fundazioaren Estatutuen 24.2 artikulua xedatutakoari jarraituz, (\*\*\*\*) andrearen alde beharrezko botereen eskritura egilestea adostu zen, bere jarduerak hirugarren pertsonen aurrean legezkatzat jotzeko. Eskritura 2009ko urriaren 27an egiletsi zen.

Hau da, aipatu den denboran zeharreko segidatik ondoriozta daiteke, Musikene sektore publikoko fundazio pribatuari dagokionez, Sail honek, legez osatu eta izendatutako organoen bidez, ezin izan zituela 2006ko ekitaldiko jarduerak kudeatu, planifikatu, ikuskatu eta berrikusteari lotutako eskumenak erabili.

Horri jarraiki, hala badagokio, igorritako Behin-behineko Txostenaren inguruko Alegazioak bidaltzea 2006ko ekitaldia kudeatzeaz arduratu zirenei dagokie.

## **ERANSKINEI ALEGAZIOAK**

### **BAKARRA.- A.2, A.3, A.4 ETA A.5 ERANSKINEI.**

Fiskalizazio Txostenaren emaitzen inguruan igorritako Alegazio-idatzian aipatu bezala, txostena 2006ko ekitaldiari dagokio. Horri jarraiki, hala badagokio, aipatu Eranskinetan jasotako edukiari eta datuei buruzko Alegazioak bidaltzea 2006ko ekitaldia kudeatzeaz arduratu zirenei dagokiela ulertzen da. Hau da, 2005eko uztailearen 27aren ondoren eta 2006ko maiatzaren 24aren ondoren osatutako Patronatuari. Bien lehendakaria Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu (\*\*\*\*) jauna izan zen.

## **BIOEF – BERRIKUNTZA ETA IKERKETA SANITARIOEN B+I+O EUSKO FUNDAZIOAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**

### **TXOSTENAREN ONDORIOEI EGINDAKO ARRAZOIBIDEAK**

#### **II.1.12. EPIGRAFEA**

**“ETORTEK 2005” deialdiko genotipaketari buruzko 463 mila euroko azterlan eta txostenei buruzko laguntza teknikoaren gainean espedientea:**

Azpikontrataturako lanak, Bioef fundazioaren eta enpresaren arteko Medikuntza Espezializatuko lankidetzaproiektuaren barne daude. Proiektu horren helburua, pazientearen informazio genetikoa oinarri hartuta, pazienteari dosi zuzenera egokitutako botika egokia emateko diagnosi-sistemak garatzea da. Enpresa liderra da ADNaren aldaerak identifikatzeko tresnak garatzen, eta EB marka duen lehenengo ADN txipa garatu enpresa europar aitzindaria da. Enpresak garatu duen tresna nagusienetako bat, gibelak botika nagusi batzuk metabolizatzekeo prozesuan parte hartzen duten poliformismo genetikoak identifikatzen dituen ADN txipa da. Aldaera genetiko horiek identifikatzeari esker, azpikontratazio horren esparruan, gaixotasun onkologikoak eta nahasmendu psikotikoak dituzten gaixoak tratatzeko medikuntza pertsonalizatuko tresnak eta botika inmunosupresoreak garatu ahal izan dira.

Medikuntza Pertsonalizatuko proiektu hori, fase honetan, finantzaketa lortzeko Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak ikerketa estrategikorako “Etortek” programaren barruan ematen dituen laguntzen deialdira aurkeztu zuen Fundazioak, - deialdiaren agiria eskaneatu dugu horren berri izan dezazuen (“Convocatoria Etortek 2006.pdf”):

- “Etortek” programaren laguntzaren eskatzaileek Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareko agenteak izan behar dute eta enpresako I+G-arekin lankidetzaproiektua aurkeztu behar dute. Fundazioa Sareko agentea da.
- Proiektuaren aurrekontuan, lankidetzaproiektuan parte hartzen duten pertsona guztien gastuak idatzi behar dira (agentearen beraren gastuak eta, finantzaketa lortuz gero, baita proiektuan parte hartuko lukeen enpresako I+G-arenak ere).
- Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak proiektu hori, aurrekontu osoa edo horren zati bat finantzarria dela uste badu, deialdi horretarako proiektuarentzat finantzaketa eskatu duen Sareko agenteak aurrekontuan idatzitako funtsak jasoko ditu. Jasoko diren funtsetako batzuk proiektuan parte hartuko duen enpresako I+G-ko gastuak finantzatzeko erabiliko direnez, agenteak enpresako I+G-a azpikontratatu beharko du.

Fundazioak esandako deialdian aurkeztu duen eskabidean ikusten denez (deialdiaren agiri hauek eskaneatu ditugu, horien berri izan dezazuen: “Memoria Tecnica MP Etortek 2006.pdf” eta “Presupuesto-ETORTEK-2006-Mediciona Personalizada.pdf”), Medikuntza Pertsonalizatuko proiektuaren egikaritzapean, enpresa horrek 460.752 euroko (BEZa barne) kostuaz parte hartuko zuela aurreikusi zen:



- Finantzaketa lortuz gero, proiektuan parte hartuko lukeen enpresako I+G-ko partaide bakarra enpresa hori zen. Agiri honekin batera igortzen dizkizugun agiri eskaneatuetan (3 enpresaren egiaztagiriak) adierazita dago hori.

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak, esandako deialdiaren ebazpenean, eskabidearen xede den Medikuntza Pertsonalizatuko proiektua finantzagarria dela uste du, ebazpen horretan ikus daitekeen bezala (“Resolución Etorrek 06.pdf” agiria eskaneatu dugu, horren berri izan dezazuen), 400.000 euroekin finantzatzen du.

Fundazioaren beraren langileen arduraldiaz eta enpresarekin aurreikusitako enpresako I+G-aren partaidetzaz (hori azpikontrataturaz) egikaritzen da proiektua.

Ikusten denez, kontratatutako “laguntza teknikoa”, enpresako I+G-aren lankidetzaz, proiektu hori finantzatu zuen ikerketa-proiektuen deialdiaren esparruan antolatzeko modu logikoa baino ez da.

### **Ekipamendu zientifikoak erostea, Karlos III.a Osasun Institutuaren deialdia (10 espediente):**

Deialdi honen kasuan, erosteko prozesua testuinguruan jarri beharra dago. Hauxe zen prozesua:

1. Karlos III.a Osasun Institutuak deialdi bat ireki zuen osasun-ikerketarako ekipamendu zientifikoak erostea finantzatzeko.
2. Fundazioak euskal sare publiko guztiaren eskaerak biltzen ditu.
3. Deialdi horretara aurkeztu ziren eskabideetan, laguntza zein ekipamendu erosteko eskatzen zen adierazi beharra zegoen, besteak beste, baita erosketaren zenbatekoa ere (hornitzaile baten aurrekontua aurkeztu beharra zegoen).
4. Karlos III.a Osasun Institutuak jasotako eskabideak aztertu zituen eta batzuei laguntzak ematen zizkien eta beste batzuei, ez.
5. Laguntza ematen bazien, hauxe esan nahi zuen: onuradunak (kasu honetan, Fundazioa) finantzaketa eskatu zuen ekipamendu jakina erosi behar zuen eta esandako prezioarekin gainera. Logikoki, ekipamenduaren hornitzaileak, hortaz, laguntza-eskabidean adierazitako aurrekontua egin zuena izan behar zuen.

Ondorioz, hauxe argudiatzen dugu: ekipamenduak finantzatu zituen deialdiaren esparruan dagozkion betebeharrak bete ditu Fundazioak (Karlos III.a Osasun Institutuak espedienteei buruz egin dituen ikuskaritzetan frogatu denez).

Karlos III.a Osasun Institutuak ezarritako betebeharrak (eta ez beste batzuk) betetzeak ahalbidetu du ekipamendu horiek erostea.

Eta, azkenik, deialdia Karlos III.a Osasun Institutuak (gaur egun, Zientzia eta Berrikuntza Ministeriora atxikitako erakunde publikoa) egin du eta deialdi horren eskatzaileak erakunde



publikoak baino ez dira izan behar; Fundazioak, beraz, deialdiak ekartzen zuen izapideak, legezko eskakizun guztiak betetzen zituela ulertu zuen (eta horrela ulertu beharra dago).

Dena den, adierazi beharra dago, Sektore Publikoaren Kontratuen Legea (30/2007 Legea) indarrean jarri zenetik, Karlos III.a Osasun Institutuaren deialdia 30/2007 Legearen esparruaren barruan dagoela.

### III.3.6. EPIGRAFEA

**Langile finko bat kontratatzeari dagokionez, hauxe dio behin-behineko txostenak: “ez dago aztertutako frogan eta agirien ebidentzia nahikorik, berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioak beteko direla bermatzeko”:**

Idazki honekin batera, hautapen-prozesua egitea azpikontratatu zitzaion enpresaren (langileak hautatzen dituen) txostena igortzen dizugu.

Txosten horretan, azkenean kontratatu zen langilea, berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioen arabera, izangai onena zela adierazi zuten probak eta agiriak jasota utzi dira.

**Bestetik, behin-behineko txostenak goi-zuzendaritzako 3 kontratu daudela adierazten du. Hauxe dio txostenak: “horrelako kontratuak, zeregin garrantzitsuak egiteko erantzukizun berezia duen pertsona batek egiteko aproposak dira”.**

Lehenbizi, esan beharra dago, ez dakizkigula txostenaren ondorioak, Fundazioak kontratu horiek behar bezala erabili ez dituela esan nahi duen, zeren eta txostenak ez baitu argi adierazten.

Epaitegia zalantzat badago, adierazi beharra dago 3 pertsona horiek egindako zereginak erantzukizun berezikoak direla; horra hor zergatik esaten dugun:

- a. Fundazioak antolaketa-berrikuntzaren arloan eta osasun-ikerketaren arloan egiten duen jarduera, euskal osasun-sistema guztiarentzat da. Fundazioko zuzendarien erantzukizunaren garrantziaren ideia ematen du horrek.
- b. Fundazioko 2 Institutuetako zuzendariak (3 kontratuetako 2), Osasun Sailaren organigramako “zuzendari” maila dute.
- c. Zuzendari bezala, gaur egun, Osasun Saileko Zuzendaritza Batzorde handiagotuan parte hartzen dute.

Bestetik, uste dut egokia izango litzatekeela, langile horien ordainsariak legeriak ezarritako mailaren barruan daudela azpimarratzea.

Halaber, azpimarratu nahi dugu, txostenean agertzen diren beste 4 fundaziok goi-zuzendaritzako kontratuak ere badituztela, eta horietan ez dela gure Fundazioan agertzen den aipamenaren antzeko berariazko aipamenik agertzen.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ERANSKINEI EGINDAKO ARRAZOIBIDEAK

### A.5. ERANSKINA:

Ez genekien Kontabilitate Liburuak Fundazioen Erregistroan aurkeztu ez zirenik. Berehala ekin diegu erregistratzeko izapideei.

## HOBETUZ LANBIDE HEZIKETARAKO EUSKAL FUNDAZIOAK AURKEZTU DITUEN ALEGAZIOAK

### 1. AURRETIKOA

Aldez aurretik, kontraesana dirudien zerbait jasoarazi nahi dut: Hobetuz Fundazioa euskal sektore publikoaren parte gisa hartzea eta, horrenbestez, aztergai dugun ikuskapenaren xede izatea, izaera hori legez aintzatetsita ez duenean.

Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 1/1997 Errege Dekretu Legegilearen 23. bis artikulua dio:

*“23. bis artikulua. – Kontzeptua*

*Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio izango dira beren patronatuko kide gehienak sektore publiko horretako erakundeek izendatuak dituztenak eta, horrez gainera, honako ezaugarrietako bat daukatena:*

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak edo Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko gainerako erakundeek, zuzenean nahiz zeharka, gehiengoz egin duten ekarpen bati esker eratuta badaude.*
- b) Beren fundazio-ondarea, ehuneko berrogeita hamarretik gorako portzentaje batean, aurreko idatz-zatian adierazitako erakundeek emandako edo utzitako ondasunez edo eskubidez eratuta badago modu iraunkorren”.*

Hobetuzen kasuan, agerian da bere patronatuko kide gehienak ez direla euskal sektore publikoa osatzen duten erakundeek izendatuak. Hortaz, ezin esan liteke sektore publiko horren parte denik, eta horrek kontraesanekoa dirudi suposatzen zaion izaerarekin, alegazio hauek aztergai duten txostenaren xede izateko.

## 2. TXOSTENAREN ONDORIOEI BURUZKO ALEGAZIOAK

### II.1. ATALA. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA, ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK ESKURATZEA

- a) Bai aholkularitza juridikoaren kontratua, bai telekomunikazioena 2006koak baino askoz lehenagokoak dira. Bigarren kontratuari dagokionez (telekomunikazioena), hura



sinatzearen arrazoia da zerbitzugileak oso eskaintza ekonomiko onuragarria egin zuela euskal erakunde publikoen artean.

- b) Parte-hartzaileen zirkularizazioarekin lotuta kontratuan arrazoibiderik ez egoteari dagokionez, ez da egia arrazoibiderik ez zegoenik. “2005eko deialdiko parte-hartzaileen zirkularizazioa”-rekin lotutako kontratua esleitzeko arrazoi ugari daude, espedientean jasotzen denez (horren kopia 1. dokumentu gisa erantsita doa). Kasurik okerreanean, in aliunde arrazoibidearen doktrina aplikatzekoa litzaioke, hau da, administrazioarekiko auzi-jurisprudentziak oro har onartutako igorpen bidezkoa.
- c) Informatika-zerbitzugintzako kontratuari dagokionez, zerbitzugilea gehienbat Eusko Jaurlaritzako titulartasun publikokoa denez, “baliabide propiotzat” hartu behar da, Sektore Publikoaren kontratuei buruzko 30/2007 Legearen arabera.

Ildo horretatik, 2008ko azaroaren 5eko Ezohiko Batzar Nagusian erakunde zerbitzugileak erabaki zuen bere sozietate-helburua aldatzea eta 3. artikuluan atal berri bat sartzea, honela idatzita:

*“Euskal Autonomia Erkidegoaren, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundien baliabide propioa eta zerbitzu teknikoa izatea. Horretarako, bidezko kudeaketa-mandatuak sinatu ahal izango ditu, baldin eta horiek sozietatearen xedearen barruan baldin badaude”.*

### III.5.5 ATALA. BESTELAKO ALDERDIAK

Hobetuzen Bilboko bulegoak eta garajeak errentan hartzeko kontratuan izandako prezio-igoerek errentatzailearen merkataritza-politikari erantzuten diote soilik. Izan ere, hark aurreko titularrari eraikina eskuratu ondoren, berri beharreko kontratu guzti-guztien errentak igo zituen, eta horien artean Hobetuzena.

Hobetuzek Eusko Jaurlaritzari behin eta berriz eskatu dio Bilboko egoitza kokatu ahal izateko lokal batzuk gaitzea. Hura Bizkaia plazako eraikinean kokatzea ere eskatu zion. Eusko Jaurlaritzak ez zuen eskaera aintzat hartu, fundazioa pribatua zela eta.

Nolanahi ere, Epaitegiaren txostenean, alderdi horrekin lotuta, errentak edo horien gehikuntzak gehiegizkotzat jotzera eraman duten irizpideak azaldu beharko litzateke.

## 3. ERANSKINEI BURUZKO ALEGAZIOAK

### A.5 ATALA. ERREGISTROAN AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA

Atal honetan jasotako taulan esaten da Hobetuzek ez zituela 2006ko ekitaldiko aurrekontuak aurkeztu Fundazioen Erregistroan.

Hori egia da, baina badu bere azalpena.

Lehenik eta behin, jasoarazi beharra dago Hobetuzek diru-laguntzetara zuzentzen dituen funtsak Eusko Jaurlaritzatik eta/edo Lan Ministeriotik datozela; beraz, horiek erabilgarri izan arte ezin ditu bere aurrekontuak onartu eta Erregistrora bidali.



Bigarrenik, 2006ko kasu zehatzaren zergatia da Hobetuzeko Patronatuko orduko lehendakariak, ELA-STV sindikatuaren izenean, urrian hedabideen aurrean iragarri izana Fundazioa utziko zuela, Fundazioari eta Protektoratuari formalki jakinarazi gabe. Beraz, ezin izan zen Patronatuaren bilerarik deitu 2007ko uztailan haren lehendakaria araubidez ordezkatu arte. 2007ko uztailetik aurrera aurrekontuak onartu ziren eta Fundazioak bere funtzionamenduan normaltasuna berreskuratu zuen.

2. dokumentu gisa, 2007ko uztailaren 19ko Patronatuaren bilerari dagokion aktaren ziurtagiria, Fundazioko idazkariarena, doa erantsita. Bertan ziurtatzen da:

- 2006ko irailaren 21etik 2007ko uztailaren 19ra arte ez zela bilerarik egin.
- Patronatuko lehendakari berriak 2007ko uztailaren 5ean onartu zuela kargua.
- 2006ko aurrekontua bilkura horretan onartu zela.

## **ELIKA - NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN SEGURTASUNERAKO FUNDAZIOAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**

### **II.1.14 ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK ESKURATZEA**

Lehenik eta behin azpimarratu behar da 2006an Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak ez zituela hartzen fundazioak bere sektore publikoko partaide gisa. 2007. urtean jarri zen indarrean 5/2006 Legea, azaroaren 17koa, Euskadiko Ondareari buruzko. Eta handik aurrera aldatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea eta sortu zen “sektore publikoko fundazioen” figura.

Bestalde, 2006an, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenean aipatutako kontratuak egiteko indarrean zegoen araubidea Kontratuei buruzko Legearen (ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretua) Seigarren Xedapen Gehigarriarena zen. Honela zioen: “publizitate eta lehia printzipioetan oinarrituko dira, baldin eta egingo den eragiketa printzipio horiekin bateraezina ez bada”. Aipatutako printzipioekin bat egite hau, ezin daiteke hartu zuzentzaruen eraginpeko kontratuak esleitzen dituztenean administrazio zuzenbidearen erakundeei edo sektore publikoko fundazioei eurei ezartzen zaizkien arau zehatzen aplikazio zuzentzat edo mimetikotzat; baizik eta erakundeak berak erabaki beharko luke zein den modurik egokiena, batetik, eskatutako printzipioak betearazteko (ikusitako Kontratazioaren Aholku Batzordearen 24/1995 txostena), eta, bestetik, horiek eragiketarekin izan dezaketen bateraezintasuna ebazteko. Hau da, publizitate eta lehia printzipioekin bat egiteak ez dakar, inola ere, Herri Administrazioen Kontratuen Legeak publizitatearen eta lehiaren inguruan ematen dituen arau zehatzekin bat egitea; izan ere, legegileak hori lortu nahi izan balu, berariaz adieraziko zukeen.

Are gehiago, indarrean dagoen Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 175. artikulua publizitate printzipioa betetzeko irizpideak baino ez ditu ezartzen, baldin eta kontratuaren zenbatekoa 50.000 eurotik gorakoa bada. Zenbatekoa txikiagoa bada, ordea, ez du arau zehatzik ematen.



Horregatik, publizitate eta lehia printzipioak ez betetzeagatik txostenean egiten den gaitzespena zehaztu egin behar da; izan ere, ezarri behar zen araubidea ez zen egungoa bezain zehatza, eta hortaz, ezin da ondorioztatu, beste barik, kasu zehatz batzuetan lehia aintzat ez hartzea arau-haustea denik.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenean aipatutako espediente zehatzei dagokienez, honako alegazio hauek egiten dira:

- a) Aplikazio informatikoak mantentzea eta hobetzea, kapital publikoko IKT enpresari agindutako lanen zenbait fakturei dagokie. Guztira 23.000 euro dira. Eusko Jaurlaritzaren eta hiru foru aldundien kapitala duen IKT enpresaren helburua da nekazaritzako elikagaien sektorearekin lotutako zerbitzuak eskaintzea. Horretarako, Nekazaritza Sailaren eta horren mendeko erakundeen bitarteko gisa jokatzeko du. Mantentze eta hobetze lanak, enpresak berak urteetan zehar garatu dituen aplikazioetan oinarritzen dira. Gainera, Elikak bere internet zerbitzaria erabiltzen du. Bestalde, kopuru handieneko faktura (8.200 eurokoa), IKTren datu-base bat egokitzeari dagokio. Egokitze hori ezinbestekoa zen Fundazioaren betekizunak gauzatu ahal izateko. Beraz, gainerako lanak bezala, IKTri agindu behar zaio.
- b) Nutrizio ohiturei buruzko azterlana (20.000 eurokoa) aurretik egindako Kontsumo ohiturei buruzko azterlanaren jarraipena da. Azterlan hori egiteko bi aurrekontu eskatu ziren, eta prezioa eta kalitatea aintzat hartuta, erabaki genuen kontratatutako enpresak egitea.
- c) Testuen itzulpen zerbitzuari (16.000 euro) dagokionez, 2002. urtean aurrekontua eskatu genien bi enpresari, eta biek eskainitako prezioak erkatu genituen: baten eskaintza folioko 16,90 eurokoa zen eta bestearena 27 eurokoa. Lehenengo enpresa kontratatu genuen eta harekin jarraitzen dugu lanean aipatutako datatik aurrera. Kontratututako enpresak teknikari bat dauka, Elikagaien Teknologian lizentziaduna eta itzultzaile titulua duena. Teknikari horrek Fundazioko itzulpen teknikoak baino ez ditu egiten.

## II.2.9 LANGILEAK KONTRATATZEA

Behin betiko kontratatu diren hiru langileak hautatzeko, iragarkia argitaratu genuen zenbait komunikabidetan 2001eko otsailaren 11n. Hautaketa prozesua curriculumak eskuratu ostean egin genuen. Berariazko probak eta banakako elkarrizketak egin ziren Elikako zuzendari-gerentearekin eta Neiker Institutuko zuzendariarekin.

Laugarren langilea geroago hautatu zen, eta horretarako iragarkia argitaratu genuen ingeniari agronomoen elkargoetan, Elikagaien arloko Zientzialari eta Teknologoen Elkartearen buletinean, ACTAEn eta albaitarien elkargoetan. Zuzendari-gerenteak elkarrizketatu eta balioetsi zituen hautagaiak, langileen ordezkariarekin batera, eta hautagaietako bat kontratatu zuten.

Aintzat hartuta hasieran kontratatutako langileek bertan zeramaten denbora eta euren balioa, gaitasun eta eskarmentua, erabaki zen horien hasierako obra-kontratuak behin betiko egitea; izan ere, 5/2006 Errege Lege-Dekretuaren arabera, 30 hileko epean enpresarentzat 24 hilez lan egin duten langileak behin betiko langile izango dira.






Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Horrela, egiaztatu egiten da hautaketa-prozesu horietan bete egin direla, batetik, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak, eta bestetik, aldi baterako kontratazioa mugatzeko eta aldi baterako lana finko egiteko lege-xedapenak. Beraz, Epaimahaiak iritzia aldatu beharko luke.

### **III.3.7 BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK**

- a) 2002ko irailean sinatu zen goi zuzendaritzarako kontratuan hasierako ordainsaria eta aldean artean urtero ordainsaria negoziatzeko aukera ezarri ziren (Bosgarren hitzarmena). Urtebeteko probaldiaren ostean, ahoz adostu zuten ordainsaria aurreko langilearenarekin parekatzea. Ordainsari hori Eusko jaurlaritzako zuzendari bati dagokiona da. Hori 2003ko irailean egindako Batzorde Iraunkorrean (akta jasota dago) onetsi zuten formalki. Fundazioaren Estatutuen arabera, Batzorde Iraunkorra da Patronatuaren organo eskuordetza-emailea eta honako hauek osatzen dute: Patronatuko lehendakaria, lehendakariordea, eta Fundazioko Patronatuak berariaz izendatutako patroia.
- b) 2006ko ordainsari aldagarria 2007an kontabilizatzen da, urtea amaitu ondoren ordaintzen baita. Urtero egin izan dugu horrela. Ordainsari aldagarria hitzarmenean dago adostuta, Kudeaketa Planean eta pertsona bakoitzarekin ezarritako helburuak betez. Oinarrizko soldatari dago lotuta eta ez da Fundazioaren emaitzen araberakoa, Fundazioak ez baititu fakturatzeko eskaintzen dituen zerbitzuak.





## I. INTRODUCCIÓN

El programa anual de trabajo de este Tribunal incluye, a petición de la Comisión de Economía, Hacienda y Presupuestos del Parlamento Vasco, la fiscalización de las fundaciones con posición dominante de las Administraciones del Sector Público Vasco a 31 de diciembre de 2006.

Nuestro análisis se circunscribe a verificar el cumplimiento de la legalidad aplicable en aquellas fundaciones en las que participa la Comunidad Autónoma de Euskadi (CAE) y el conjunto de Administraciones que integran el Sector Público Vasco mantiene una posición dominante, es decir, las constituidas con una aportación mayoritariamente pública y/o aquellas cuyo patrimonio fundacional, con carácter de permanencia, está formado en más del 50% por bienes o derechos aportados por Entes Públicos.

Hemos analizado el cumplimiento de la legalidad aplicable a la adquisición de bienes y servicios, a la contratación de personal y al destino de los ingresos recibidos durante el ejercicio 2006. En relación con este último apartado, hemos verificado que, al menos, el 70% de los ingresos se ha destinado a los fines fundacionales, tal y como establece el artículo 30 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

Para determinar las fundaciones objeto de fiscalización hemos recabado información del Registro de Fundaciones del País Vasco. Según el último dato actualizado facilitado por el Registro y la información adicional obtenida de la Administración General de la CAE, a 31 de diciembre de 2005 existían 24 fundaciones participadas por la CAE, y en 17 de ellas las Administraciones Públicas mantenían una posición dominante.

De ellas, la Fundación Museo Guggenheim Bilbao fiscalizada en los ejercicios 1998, 2005 y posteriormente en 2010, para el periodo 1999-2007 y la Fundación Museo Vasco del Ferrocarril creada el 28 de diciembre de 2006, no son objeto de esta fiscalización.



Las 15 fundaciones objeto de informe y la participación de la CAE y del conjunto de la Administración del Sector Público Vasco en la dotación fundacional a 31 de diciembre de 2006 son:

	% participación	
	CAE	Total Sector Público Vasco
Fundación Donostia International Physics Center.....	50%	83,3%
Fundación EKAIN.....	33,3%	100%
Fundación FilMOTECA Vasca .....	33,3%	66,7%
Fundación Instituto Intern. Sociología Jurídica de Oñate.....	100%	100%
Fundación Instituto Pesquero y Alimentario-AZTI.....	44%	98,7%
Fundación Joven Orquesta de Euskal Herria-EGO .....	100%	100%
Fundación Kalitatea .....	100%	100%
Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao .....	33,3%	100%
Fundación Museo de la Paz de Gernika.....	33,3%	100%
Fundación Formación Técnica Máquina Herramienta.....	59%	85%
Fundación Privada para el Centro Superior de Música del País Vasco (Musikene) ..	100%	100%
Fundación Vasca de Innovación e Investigaciones Sanitarias-BIOEF .....	100%	100%
Fundación Vasca para la Formación Profesional-HOBETUZ.....	100%	100%
Fundación Vasca para la Seguridad Agroalimentaria-ELIKA .....	33,3%	99,6%

La Fundación Labein se incluyó inicialmente en el alcance del trabajo. A la vista de que a la fecha del informe, dicha Fundación se ha extinguido, se han eliminado las referencias a la misma contenidas en el informe provisional.

Los resultados del trabajo realizado se presentan en los siguientes apartados:

- Opinión sobre el cumplimiento de legalidad. (Ver apartado II)
- Consideraciones sobre los sistemas de control interno y procedimientos de gestión. (Ver apartado III)
- Cuentas anuales de las fundaciones analizadas al 31 de diciembre de 2006. (Ver apartado IV)

## **II. OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD**

### **II.1 ADQUISICIÓN DE BIENES Y SERVICIOS**

En cuanto a la normativa aplicable a la adquisición de bienes y servicios, hemos tenido en cuenta los términos del artículo 2 apartado 1 y la disposición adicional sexta del Real Decreto Legislativo 2/2000 por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas (TRLCAP), en la redacción dada por Real Decreto-ley 5/2005, de 11 marzo, de reformas urgentes para el impulso a la productividad y para la mejora de la contratación pública, que incluyen expresamente a las fundaciones del sector público en su ámbito de aplicación.

Hemos revisado el cumplimiento de las prescripciones del TRLCAP relativas a la capacidad de las empresas, publicidad, procedimientos de licitación y formas de adjudicación para los contratos de obras, de suministros, de consultoría y asistencia y de servicios de cuantía igual o superior, con exclusión del IVA, a 5.278.227 euros, si se trata de contratos de obras, o a 211.129 euros, si se trata de cualquier otro contrato de los mencionados (art. 2.1 TRLCAP).

Respecto a los contratos no incluidos en el párrafo anterior hemos verificado que la actividad contractual se ajusta a los principios de publicidad y concurrencia (D.A. sexta TRLCAP).

Los incumplimientos de legalidad detectados en la adquisición de bienes y servicios se detallan a continuación:

#### **II.1.1 FUNDACIÓN DONOSTIA INTERNATIONAL PHYSICS CENTER**

- Otros 4 expedientes analizados, por importe de 1.315 miles de euros, se han adjudicado directamente, sin publicidad ni concurrencia. (Ver A.2)

#### **II.1.2 FUNDACIÓN FILMOTECA VASCA**

- En la adquisición e instalación de mueble telecinema, por importe de 245 miles de euros, se han incumplido las prescripciones del TRLCAP relativas a la capacidad de las empresas, publicidad, procedimientos de licitación y formas de adjudicación.
- En 2 expedientes de suministro, por importes de 125 y 36 miles de euros respectivamente, no se establecieron criterios de adjudicación y no se justificó la selección del adjudicatario. (Ver A.2)

#### **II.1.3 FUNDACIÓN INSTITUTO INTERNACIONAL DE SOCIOLOGÍA JURÍDICA DE OÑATE**

- El servicio de limpieza por 31 miles de euros se adjudicó directamente sin publicidad ni concurrencia, y el de transporte de taxi por importe de 28 miles de euros sin concurrencia.

#### **II.1.4 FUNDACIÓN INSTITUTO PESQUERO Y ALIMENTARIO-AZTI**

- La adjudicación de la construcción del nuevo edificio de oficinas de Derio, por importe de 6.591 miles de euros, se realizó incumpliendo las prescripciones del TRLCAP relativas a la capacidad de las empresas, publicidad, procedimientos de licitación y formas de adjudicación.

Durante la ejecución del contrato se han producido modificaciones por importe de 811 miles de euros. En tres de ellas, por importe de 539 miles de euros, no consta su aprobación por la fundación, tras el correspondiente estudio de 3 ofertas de precios contradictorios previsto en el contrato.

El plazo inicial de ejecución, 15 meses, se ha ampliado hasta 24, lo que ha supuesto un incremento del 60%.

- La contratación del servicio de viajes, con un gasto anual de 326 miles de euros, adjudicada directamente incumple las prescripciones del TRLCAP relativas a la capacidad de las empresas, publicidad, procedimientos de licitación y formas de adjudicación.
- De acuerdo con un convenio suscrito con la Fundación Tecnalía, se han pagado 235 miles de euros por servicios de racionalización de las políticas comerciales, sin que conste justificación de la cuota anual establecida ni de los conceptos incluidos.
- Se han abonado a Teize S.L., socio fundador, 203 miles de euros, en concepto de comercialización de productos y servicios, en cumplimiento del convenio firmado el 23 de noviembre de 2001, sin que conste el desglose de los conceptos a justificar trimestralmente con la facturación.

Por otra parte se han pagado 170 y 183 miles de euros por el asesoramiento en 2 proyectos sin que conste justificación del objeto del contrato. (Ver A.2)

- En 16 expedientes de servicios, asistencia técnica y suministro por 1.149 miles de euros, no se ha realizado publicidad ni concurrencia. Por otra parte en el servicio de alquiler de embarcación JUVENA 06, por 106 miles de euros, falta publicidad y en otros 2 de servicios y uno de suministro, por importe de 26, 14 y 31 miles de euros, respectivamente, no se realizó concurrencia. (Ver A.2).

#### **II.1.5 FUNDACIÓN JOVEN ORQUESTA DE EUSKAL HERRIA-EGO**

- El contrato para la gestión de la actividad de la fundación, publicidad y gestión de becas, con una ejecución en 2006 de 124 miles de euros, fue adjudicado directamente sin publicidad ni concurrencia. Además, se ha adjudicado a la misma sociedad encargada de la gestión de la fundación, sin publicidad ni concurrencia, la organización de los actos conmemorativos del X aniversario de la Orquesta por importe de 34 miles de euros.

Por otra parte, el servicio de transporte de la Orquesta por importe de 21 miles de euros, se adjudicó directamente sin concurrencia.



### **II.1.6 FUNDACIÓN KALITATEA**

- El servicio de gestión de la publicidad en prensa radio y televisión, por importe de 520 miles de euros, fue adjudicado directamente, incumpliendo las prescripciones del TRLCAP relativas a la capacidad de las empresas, publicidad, procedimientos de licitación y formas de adjudicación.
- Otras cuatro adjudicaciones, dos de servicios, una de asistencia técnica y un suministro por importes de 138, 97, 130 y 73 miles de euros, respectivamente, se realizaron sin publicidad ni concurrencia. (Ver A.2)

### **II.1.7 FUNDACIÓN MUSEO DE BELLAS ARTES DE BILBAO**

- El expediente del servicio de vigilancia del Museo, por importe adjudicado de 313 miles de euros y una ejecución final de 544 miles de euros, fue adjudicado sin publicidad alguna, se incluyeron criterios sin ponderar y alguno de ellos no referido al objeto del contrato, incumpliendo las prescripciones del TRLCAP relativas a la capacidad de las empresas, publicidad, procedimientos de licitación y formas de adjudicación y no se aprobaron modificaciones del contrato inicialmente adjudicado.
- El servicio de auxiliares de sala, por importe de 265 miles de euros, que está sujeto a las prescripciones de TRLCAP relativas a la capacidad de las empresas, publicidad, procedimientos de licitación y formas de adjudicación, fue adjudicado directamente sin publicidad ni concurrencia.
- El suministro de gasóleo por importe de 104 miles de euros, el servicio de gestión del Proyecto ARTEDER por importe de 102 miles de euros, el seguro para la exposición Herrera-Velazquez por 75 miles de euros, el de impresión de folletos por 67 miles de euros, el de educación por 63 miles de euros y el de telefonía por 37 miles de euros, fueron adjudicados directamente sin publicidad ni concurrencia.
- El expediente del servicio de limpieza del Museo, el de transporte de la exposición Zamacois y el de taquilla y guardarropa por importe de 180, 135 y 89 miles de euros respectivamente, fueron adjudicados sin publicidad y este último sin aprobar modificaciones respecto al importe contratado. El de catalogación bibliográfica por importe de 29 miles de euros fue adjudicado sin concurrencia.

### **II.1.8 FUNDACIÓN MUSEO DE LA PAZ DE GERNIKA**

- El servicio de gestión del funcionamiento del Museo, por importe de 105 miles de euros, que se ha ejecutado por 146 miles de euros, el del servicio de limpieza por 39 miles de euros y el de imprenta por 34 miles de euros, se han adjudicado sin publicidad ni concurrencia y el primero de ellos sin aprobar modificaciones por el exceso ejecutado.



### **II.1.9 FUNDACIÓN PARA LA FORMACIÓN TÉCNICA DE LA MÁQUINA HERRAMIENTA**

- Los expedientes de colaboración en el Proyecto Tedes por 109 miles de euros, de servicio de limpieza por 66 miles de euros, de desarrollo de software informático por 50 miles de euros, de impartición de cursos de inglés por 44 miles de euros, de anuncios en prensa por 42 miles de euros, de implantación del plan de euskera por 41 miles de euros y de reprografía por 32 miles de euros fueron adjudicados directamente sin publicidad ni concurrencia.
- Los expedientes de colaboración con la Fundación Robotiker por 28 miles de euros, del servicio de restaurante por 25 miles de euros, de diseño y reprografía de campañas publicitarias por 24 miles de euros, de mantenimiento informático por 22 miles de euros, de curso de diseño de producción por 22 miles de euros, de impresión de trípticos por 19 miles de euros, de impartición de cursos de informática por 17 miles de euros, de traducciones por 15 miles de euros y de colaboración en un proyecto en Malasia por 14 miles de euros, se han adjudicado sin concurrencia.

### **II.1.10 FUNDACIÓN PRIVADA PARA EL CENTRO SUPERIOR DE MÚSICA DEL PAÍS VASCO (MUSIKENE)**

- El servicio de gestión de viajes y alojamientos, por importe de 684 miles de euros fue adjudicado directamente incumpliendo las prescripciones del TRLCAP relativas a la capacidad de las empresas, publicidad, procedimientos de licitación y formas de adjudicación.
- El servicio de catalogación por 35 miles de euros se adjudicó directamente sin publicidad ni concurrencia. El suministro de 2 contrabajos y el servicio de auditoría, asesoramiento contable y fiscal, por importe de 26 y 20 miles de euros, respectivamente, se han adjudicado sin concurrencia.
- La fundación ha abonado al Consorcio Palacio Miramar un importe de 273 miles de euros, en concepto de gastos de ubicación de la fundación en el Palacio Miramar. No consta el acuerdo sobre la cantidad a satisfacer por dicho concepto, previsto en el convenio firmado el 5 de julio de 2001 entre ambas partes.

### **II.1.11 FUNDACIÓN VASCA DE INNOVACIÓN E INVESTIGACIONES SANITARIAS-BIOEF**

